


# 75

# ADMINISTRAZIOA EUSKARAZ

2012ko urtarrila



## ELKARRIZKETA

**Elias Querejeta:**  
*Ez dakit zer den  
'Querejeta zigilua',  
ez zait gai hori  
interesatzen*

## EZTABAIDA

### Iruzur fiskalaren peskizan

Krisi garaian inoiz baino gehiago hitz egiten da iruzur fiskalari aurre egin beharraz. Zenbaitek uste du ausardia handiagoarekin aurre egin behar diotela iruzur fiskalari horretarako eskumena duten administrazioek. Izan ere, ezkutuko ekonomiaren datua Europako handienetakoa da Espainiako estatuan. Iruzur fiskalari aurre egiteko neurriez mintzatu gara ogasun arduradunekin eta teknikariek.

## IVAP

HERRI ARDURALARITZAREN  
EUSKAL ERAKUNDEA

Erakunde autonomoladuna  
Organismo Autónomo del



EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO

## ERREPORTAJEA

### Hirugarrenean, 75. zenbakiraino!

*Hiru ekinaldi  
behar izan zituen  
'Administrazioa  
Euskaraz'  
aldizkariak bidean  
sendotzeko*



## NORMALIZAZIOA

Ebaluzaioa eta  
azterketak: kalitatea  
eta ardura

NEUS FIGUERAS



## EUSKALDUNTZEA

Hizkuntza-  
alternantziak

INMA MUÑOZA



# ADMINISTRAZIOA EUSKARAZ

**Zuzendaritza:**

Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundea (IVAP)

**Koordinatzailea:**

Xabier Amatria

**Diseinua, fotokonposizioa eta inprimatzea:**

Itxaropena S.A.

**Ilustrazioak:** Concetta Probanza

**Zenbaki honetako lankideak:**

Kaxildo Alkorta, Xabier Amatria, Oscar Arana, Mikel Azkarate, Urtzi Barrenetxea, Encar Echazarra, Aritz Eiguren, Luis Elizondo, Miel A. Elustondo, Neus Figueras, Josune Gereka, Maite Gomez, Marta Iglesias, Luma, Inma Muñoa, Oihan Odriezola, Rakel Olea, Eneko Oregi, Nerea Pikabea, Joseba Uskola, Xabier Yurramendi, Izaskun Zuntzunegi

**ADMINISTRAZIOA EUSKARAZ**

aldizkarian argitaratutako artikuluak berriro daitezke bai osorik, bai zatika, baina artikuluak nondik atera diren aipatu behar da beti.

**ADMINISTRAZIOA EUSKARAZ**

aldizkariak ez ditu derrigor bere egiten artikulu eta kolaborazioetan agertzen diren iritziak.

ISSN: 1576-5563

Legezko Gordailua: BI-1141-93

Egilea: Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundea

Donostia-San Sebastián 1, 01010 VITORIA-GASTEIZ.

Tel. 945 01 76 37

[www.ivap.euskadi.net](http://www.ivap.euskadi.net)

## Aurkibidea

- 2 **Marraskia**  
Aritz Eiguren
- 4 **Pasadizoak**  
Agurrak [1]
- 5 **Pertsonaia**  
Itziar Mendizabal
- 6 **Mundua online**  
Zuzeu albistaria  
**DUDANET**
- 7 **Elkarrizketa**  
Elias Querejeta
- II **Eztabaida**  
Nola egin aurre iruzur fiskalari?
- 15 **Gramatika**  
Euskaltzaindiaren arauak:  
Europako geografia-izenak  
nola idatzi euskaraz
- 17 **Leihatila**  
SOKRATESENEAN  
Oskar Arana
- [ **ARIKETAK** ]
- 19 **Informazio eta komunikazioaren teknologiak**  
IKASYS: norberaren trebakuntza sistematikoa ordenagailu bidez
- 20 **Erreportajea**  
Hirugarrenean,  
75. zenbakiraino!
- 25 **Normalizazioa**  
Ebaluazioa eta azterketak:  
kalitatea eta ardura
- 27 **Lanean euskaraz**  
“Gipuzkoako Zerga Gida” eta jakintza partekatze gongibitea
- 28 **Ba al zenekien?**  
Pedro Navarro, gudagizon euskalduna errenazimenduko Italian
- 30 **Euskalduntzea**  
Hizkuntza-alternantzia
- 32 **Argitalpenak**  
*Udal Gida*: Toki-administrazioan lan egiteko tresna, gure inguruko aditu askoren ekarpenez osatua
- 33 **Leihatila**  
AMETS GAIZTO, AMETS GOXO  
Xabier Yurramendi
- 34 **Denbora-pasak**

## JOXERRA INTERÍNEZ

Behin-behineko funtzionarioa

[interinez@mindless.com](mailto:interinez@mindless.com)



# Agurrak (1)

## (Zer moduz? Ondo izan! eta bestelakoak)

KAXILDO ALKORTA

LAGUNA

**H**amalau urte genituela Iruñako institutura joan ginen “reválida”ko azterketa egitera. Denbora nahikoa eta, Iruñea inguruko harresien bueltan ere ibili ginen denbora-pasa koadrilan. Gutako bat haserretu egin zen pasadako jendeari “egun on” esan eta ia inork erantzuten ez ziolako.

–Jendeari agurra egin behar zaiola esaten zigutek eta zera, inork ez ziguk erantzuten –esan zigun.

Gurekin irakasle bat genuen, entzun egin zion eta hau esan:

–Jendeari agurra egin behar zaio, bai, baina hau herri handia da eta herri handietan, ulertzekoa da, ez gara ibiliko guztiei *egun on* edo *arratsalde on* esaten; nola ba? Herri txikitari eta mendian eta ezagunen artean eta, horrelakoetan bai, lagunari errespetua agertzeko moduetakoa da eta agurra.

Ni herri handi samar batean bizi naiz –50.000 biztanle ditu gutxi gorabehera–, eta kalean ezagunei esaten diet *kaixo*, *eupa*, *agur*, *egun on* eta horrelakoak, besteak ez. Zierbenako batek ikusten ninduenean, kalean beste aldean bazegoen ere, “Getaria a la baliza!” oihu egiten zidan. Ibaizabalen ezker alde honetan badira horrelako bakarren batzuk baino gehiago. Niri gustatu egiten zitzaidan. Beste batek, Ostiral Santu arratsaldeko zortziak aldera edo, txikiteo-orduan, agurtuaz batera, galdera ederra igorri

zidan kalearen beste aldetik. Labe Garaietako langilea zen eta, sasoi hartan euskarazko eskolak ere bazituzten lanorduetan enpresaren kontura. Zor handiagoak beste bide batzuetatik etorriko zitzaizkion Altos Hornos-i. Eta Anjel –Anjel zen eta– euskarazko eskoletara joaten zen.

–Alkorta!..., Alkorta! –deitu zidan bitan.

Begiratu eta ikusi nuenean, eskuaz eta ahoz keinua egin nion zer zebilen edo galdera moduan. Eta hau bota zidan:

–¿Qué pasa con el problema del euskara?

Niretzat Descartes-en “Cogito ergo sum” eta beste sententzia askoren aldean mamitsua da Anjelen “¿qué pasa con el problema del euskara?” hura.

Agurtzeko moduko gizonak Juan Antonio eta Anjel.

Orain urte gutxi arte, bidegorrian harantz eta honantz genbiltzanok ia guztiei agur egiten genien pasadan eta ia beti jasotzen genuen erantzuna. Igarrita nago, ordea, belarri zuloetatik esekita zintzilikario eta guzti dabilzanek ohitura hori galdua dutela, edo ikasi gabea edo berenganatu gabea, edo batek daki. Azken urte hauetako kontua da, zintzilikariodun gehien-gehienak gazteak baitira. Ez *eupik* ez *ea motel* edo *aupa neskarik* ez..., ezer ere ez. Lakuako jantokian ere, zortzi laguneko mahaian bi jubilatugai geundela, aldamenen jartzen zitzaiz-

kigun hiru edo lau, eta, ezagunak ez bagintuzten, askotan, maiz, sarri, *on egiznik* ez ziguten esaten. Geuk, bazkaria amaituta jaikitzen ginenean, euren, bai, esaten genien, eta ez zegoen gaizki esana nonbait, ez zuten txartzat hartzen eta. Orduan bai, “eskerrik asko” erantzuten ziguten. Eskerrak! Artean belarri-musikarik gabe joaten ziren bazkaritara. Lau sei urteko kontua azaldu dut. Hala ez bada, esan.

Gauza ederra da, bada, kasu egiten digutela sentitzea! Baita norberak egitea ere.

Zarauztar gazte batena kontatuko dut hemen. Joan den mendeko hirurogeita hamarreko bueltakoa da. Orduan zen gaztea hura ere; gaur egun... Mutila sendoa, ibiltaria, sindikatu abertzale batekoa. Jantzkeran hiru koloreak agerian erakutsiko zituen mendira joan-etorria egiten zuenean. Hala, bada, igande eguerdi hartan mendi buelta eginda, Getariatik Zarautza zihoan tapa-tapa eta Tontorrera heldu zenean (Getariatik Zarautza bitarteko aurreneko tunelera, alegia), zer eta, guardia zibilak, bi. Mutilak aurrera egin zuen ezer ere esan gabe. Eta guardia zibiletako batek:

–Donde hay personas se saluda. Y aquí hay personas.

–¿Dónde? –zarauztarrak.

Nik ez nuen ikusi eta ez naiz lekuko. Baina ez zen han amaitu mutilaren txangoa. ■

# ITZIAR MENDIZABAL,

BALLET DANTZARIA:

## *Dantza egitea pribilegioa da niretzat*

NEREA PIKABEA. KAZETARIA

**O**in puntun ganean darama ia bizitza osoa Itziar Mendizabalek. Airez aire dabilen hostoa bezala mugitzen da 30 urteko hondarribiarra taula ganean: arin, fin, heldutasunez, mugimendu askean. Munduko dantza konpainia handienetan egon ondoren, ibilbidearen gailurrean dago gaur egun: Londresko Royal Balleteko dantzari bakarlaria da.

### **Txikitako ametsa izan al da dantza egitea?**

Bai. Lau urterekin, etxekoei esan nien ballet dantzaria izan nahi nuela. Familian ez dugu ballet dantzaririk. Amak esaten dit umetan telebistako dantzariei begira geldi-geldi geratzen nintzela.

### **Hamalau urterekin hartu zenuen Madrilerako bidea.**

Gurasoak ahalegindu ziren niri hankak lurrean jarrarazten: Madrilen ni bezain onak ziren dantzariak izango nituela esaten zidaten. Hala ere, aukera eman zidaten. Hamasei urte arte egon nintzen

Madrilgo eskolan. Gero, konpainia batekin profesionalki hasi nintzen dantzan. 21 urterekin kanpora joatea erabaki nuen eta Zuricheko balletean hasi nintzen.

### **Zuena lanbide sakrifkatua dela esan ohi da.**

“Sakrifkatu” hitza ez zait gustatzen definizio gisa. Hitz horrek konnotazio negatiboak ditu. Momentu gogorrak izaten dira, dantzariak bakarrik egiten du bere ibilbidea. Baina dantza egitea pribilegio bat da niretzat, nahi dudana egiteko aukera baitaukat. Zorte handia dugu gustuko dugun horretan lan egiteko aukera dugulako.

### **Zer ezaugarri behar dira maila horretara iristeko?**

Badira eskolan ikasitako teknikarekin dantzari egin direnak. Baina dantzaren munduan nabarmentzen direnek artistikoki zerbait berezia dute. Besteei begira nagoenean ere etengabe ikasten ari naiz.

### **Zer aukera dago hemen dantza ikasteko?**

Eskola onak daude, baina gero ez dago non dantzatu. Hemengo dantza konpainiek ez daukate berea den antzokirik. Espainian, adibidez, alokatu egin behar izaten dituzte. Konpainiak erdi pribatuak dira. Dantzarako zaletasuna bada, baina gure artean oso errotuta dago kanpokoa hobea delako ideia hori. Triste da. Munduko konpainia handienetan dantzari euskaldun eta espainiar asko dago. Garrantzitsua da, baita ere, ikasketekin jarraitzeko aukera izatea.



### **Gaur egun Londresko Royal Balleten zaude...**

Londresko konpainiaren estilo eta ohiturara ohitu behar izan dut. Ikaragarria da! Lan baldintzak onak dira, zerbitzua handia: fisioterapeutak, psikologoak, piano-jotzailak, jantzi arduradunak, etab. Jende oso profesionala dago eta talde lan ona egiten da.

### **Noiz arte dantzaren munduan?**

Bizitzak gorabehera asko izaten ditu. Balleta mekanikoa den zerbait bilakatzen hasten den egunean, agertokira atera eta zirrarak sentitzen ez dudanean, orduan utziko dut dantza. Orain, Londresko momentuaz gozatzen ari naiz. ■



MUNDUA ONLINE

# ZuZeu albistaria

LUIS ELIZONDO, [luis@hegoa.info](mailto:luis@hegoa.info)

Zer da ZuZeu? ZuZeu albistari digital horizontala da, Internet erabiltzaile euskaldunok munduari begiratzeko daukagun leiho moduko bat. 2009ko apirilean jarri zuen martxan Xoraturikan izeneko enpresak irabazi-asmorik gabeko ekimena.

Blogen blog moduko bat ere izan nahi du ZuZeuk, nor bere alde-rik ibili beharrean, elkarren ondonoan hobeto egoten delako.

Xoraturikan enpresa hainbat diru-iturri bilatzen saiatu da, ZuZeu garatzen eta hobetzen joan dadin: erredakzioa handituz, albiste-agentzia eta argazki eta bideo-datubaseetan harpidetzak eginez, tresneriaz hornituz, eta abar.

Euskaraz sortutako albiste eta iritziez gain, beste hizkuntzetatik hartutako edukiak ere eskaintzen dira hemen esteken bidez, euskaldun internetzaleak beste hizkuntza batzuk ere baitakizki.

Baina, batez ere, ZuZeuren helburua erabiltzaileek eurek albistari digital bat egitea da. Horizontalki, sare soziala sortuz. Euren esanetan, “zu zeu gabe jai daukagu”-eta.

Erabilera-baldintzei dagokienez, muga politiko bakarra “giza eskubide guztiak gizaki guztientzat” da. Eta euskaraz izatearena ere

bai, jakina. Azken finean, internetzale euskaldunok dugun hutsarte arintzea baitu helburu albistariak. Adierazitako baldintzetan, mota eta kolore guztietako euskaldunen iritzien topaleku izan nahi luke ZuZeuk.

Ondorioz, edukiak libreak dira, eta hainbat ataletan sailkatuta daude: ekologia, ekonomia, Euskal Herria, kirola, kultura, mundua, teknologia, zientzia eta hitzorduak. Iruzkinak ere libreak dira, baina posta elektronikoko bidez egiaztatu beharko da berriz helbide horretatik etorritakoak diren. Hala ere, iruzkin ezegokiak, iraingarriak edo ezer onik ez dakartenak ezabatu egingo dituzte ZuZeuko editoreek.

ZuZeu albistarian sortutako sarriera guztiak Creative Commons lizentziapekoak dira. Horrek zera esan nahi du: banatu, kopia eta zabaldu ahal izango direla ZuZeuren eduki guztiak, betiere, bi baldintza onartzen badira; alegia, egilea eta jatorria aitortzea, eta zabaltzerakoan lizentzia berdinarekin egitea.

Behin izena eman eta gero, ZuZeu.com zeuretzat duzu, eta zeure iritzi eta albisteak argitaratu ditzakezu bertan, zuzen-zuzenean.

Helbidea, argi dago: [www.ZuZeu.com](http://www.ZuZeu.com)

## DUDANET

Hemen dituzu IVAPeko DUDANET kontsulta-zerbitzuan erantzundako zenbait zalantza:

### GALDERA

Euskaltegiko irakaslea naiz eta PROLATIBOA (-TZAT) atzizkiarekin zalantzatan nago. Kontua da, eleanitz hitza *-tzat* atzizkiarekin elkartzeko orduan duda-mudan geratu naizela.

Adibidea ondokoa da: ...neure burua ezin dezaket ikasle “eleanitz(-TZAT)” hartu...

Beraz, zer nolako egokitzapena egin beharko litzateke TZ eta -TZAT elkartzeko orduan?

### ERANTZUNA

Euskaltzaindiak ez du auzi horri buruzko araurik eman. Hala ere, *EGLU I (Euskal Gramatikaren Lehen Urratsak)* lanean honako adibideak aurki ditzakezu:

Izen arrunt biziduna **ardaztat** duten izen sintagmak. (XXI. or.)

...esaten duenak argia masa-izentzat hartzen du, **zenbakaiztat**, hortaz. (33. or.)

Gauzak horrela, *eleaniztat* idatziko genuke. Alegia, Z + -TZAT egokitzapena eginda.

### Informazio gehiago:

- EUSKALTZAINDIA, *Euskal Gramatika Lehen Urratsak I*. Bilbo. Euskaltzaindia (1991). [http://www.euskaltzaindia.com/dok/iker\\_jagon\\_tegiak/6844.pdf](http://www.euskaltzaindia.com/dok/iker_jagon_tegiak/6844.pdf)

### GALDERA

Erreprografia gela edo erreprografi gela?

### ERANTZUNA

Euskaltzaindiak zehaztu duenez, lehen osagaiaren amaiera *-ia* duten hitz elkartuetan, zilegi da azken *-a* hori desagertzea. Beraz, aukera biak dira zuzenak.

Halaber, mota horretako elkarteak marraz ere lotu ditezke. Kasu horretan mantendu egin behar da lehen osagaiaren amaierako *-a* hori.

Beraz:

Erreprografia gela. ZUZENA      Erreprografia-gela. ZUZENA  
Erreprografi gela. ZUZENA      Erreprografi-gela. OKERRA

### Informazio gehiago:

- Euskaltzaindiaren 25. araua. “Hitz elkartuen osaera eta idazkera”: [http://www.euskaltzaindia.net/dok/arauak/Araua\\_0025.pdf](http://www.euskaltzaindia.net/dok/arauak/Araua_0025.pdf)

Antzeko kontsulta gehiago ikusteko, edo zeure zalantzak argitzeko:

- <http://www.ivap.euskadi.net/r61-v50001x/eu/v50aWar/comun/JSP/v50acambioIdioma.do?v50aCgaIdioma=eu>

# ELIAS QUEREJETA:

## *Hastetik buru, prozesu osoan neurtzen da artistaren talentua*

MIEL A. ELUSTONDO  
IDAZLEA ETA ARGAZKILARIA



Zinema ekoizle da, gidoigile eta zuzendari. Espainiako zinemagintzak duen izen nagusien artean da Elias Querejeta (Hernani, 1934). Hizketan hasi eta aise mintzo da futbolaz, nekeago zinemagintzaz. “Egun osoa horretan ematen dut-eta! Beti zinema!”. Aiseago iraganaz, orainaz baino. “Nostalgia, badakizu!”. Elkarrizketa aurreko berriketan, berriz, eta Hernaniz ari garela, kantari ekin dio, ahots urratuan garbi...

“Ederra, ederra, ederra... / ederra da Donostia / ederra itsaso bazterreko / usotxo txuria...”. Behin, gogoan dut, saria eman zidan Kutxak Donostian eta, hura jasotzean, ez nuen hitzik egin, kantatu besterik. “Ederra, ederra, ederra...”. Kar, kar, kar... Haurtzarotik geratzen diren gauzak! Gurasoek euskaraz hitz egiten zuten: Querejeta Garate Insausti Insausti Epelde Zunzunegi Agirre Arana. Deitura guztiak euskaldunak. Hernanin jaio nintzen, Gurutze etxean. Baina oso gutxi hitz egiten dut euskaraz, ez naiz gauza. Gerra ondoa, badakizu. Errepresio garai hura. Hor bada kontu bat, barregarria. Ezkondu eta Sevillara joan

ziren nire gurasoak eztei-bidaian. Han, parkean gora, parkean behera zebiltzala, euskaraz ari ziren. Parean beste batzuk pasatu, nire gurasoen hizketa entzun, ama ilehoria ikusi eta esan omen zuten: “Begira horiei, ingelesez. Ondo ari dira, gero!” Eta euskaraz ari ziren! Kar, kar, kar...

Lehengo irailean, beste sari baten kasua, Donostiako Zinemaldian. Ibilbi-dearen Zinemira saria. Kanturik ez zenuen ibili, Saint-Exuperyren hitzak baizik: “Haurtzaroa dut aberri”...

... Hernani dut haurtzaro, Hernani dut aberri.

### **Eusebio Muñoa Rekondo.**

Bai. Hernaniri eskaini nion saria, oro har, eta Eusebiori zuzen-zuzenean, bizian izan dudan lehenengo lagun, eta, nire begietara, Hernanik ekitaldi hartan zeukan ordezkariari. Txikitako laguna, lehenengo laguna, eta lagun oraindik! Bizian, lagun batzuk galdu egiten dituzu, beste batzuk ez. Eusebio, adibidez, ez dut galdu.

**1934an jaio zinen, Hernanin, gorago esan dugunez. Garai hartan, sagardotegiak, bertsolariak, euskara... gerrako fusilatzeak gero... Zein duzu aldi hartako oroitzapena?**

Horrelakorik batere ez. Lagunak ditut oroimenean, etxeko baratza... Muinoan zen gure etxea, baina gaur egun ez da ageri. Aztarnarik ere ez dago. Oraindik orain izan naiz Hernanin, eta nik ezagututako bazter haren aztarnarik ez nuen ikusi. Garai hartan, hiru mila biztanle izango zituen Hernanik. Gaur egun, hogei mila izango ditu. Nire haurtzaroko Hernanirik ez dago... Hala ere, Donostian ikasi genuen guk, Jesusen Bihotza ikastetxean. Haraxe, gure lagun talde txikia. Trena edo tranbia hartu eta Donostiara joaten ginen ikastera. Baina *txikarra* egiten genuen, piper. Neu nintzen horretan buru, nola edo hala eskolara ez joaten saiatzen nintzen, batean trena galdu, bestean hartu ez... Beti zer edo zer. Horretan, egun batean, ikastetxeko zuzendariak gure aitari hots egin zion, nonbait –gure aita ere ikastetxe hartan ikasitakoa!, esateko ikasturtean zehar hobe genuela Donostian bizi. Hamabi urte nituenetik zuzendari hark esandakoa egin genuen. Udan, dena den, Hernanin ginen beti. Txikarrak!

**Donostian zaletu zinen, hortaz, zinemara...**

Ez, askoz lehenagotik datorkit. Behin, aita etxera etorri zela oroitzen naiz, autotik irten eta zer edo zer ezkutatuta zerman berokipean edo non edo non. Hartu gure koadrila eta etxeko ganbarara eraman gintuen. Han, izara bat jarri paretaren kontra, argia itzali, ezkutatua ekarri zuen zera hura atera, proiektzioa abiatu, eta pantailan Charlot ikusi nuen. Horixe da bizian dudan zinema oroitzapenetan lehenengoa, Charlot, mugitzen ohi zen moduan mugitzen. Zoragarria! Handik atzera, zinema pasio hutsa izan zait.

**Zinema pasioa zaizu oraindik?**

Zalantzarik ez izan horretan. Jakina, gaur egun, teknologia berriak dira tartean, baina irudi eta mugimendu kontu hori zoragarria iruditzen zait. Teknologia, hala ere, bitartekoa da, ez helburu. Teknologia gorabehera, film onak egiten ziren lehen, film onak egiten dira orain. Film onak, lehen eta orain, eta beti.

**Nola egiten da zinema faktoria, zuk egin zenuen bezalako produkzio-etxe bat?**

Oraindik ez dakit... Egiteko nahia behar da, eta pasioa. Biak, batez ere. Gustatu egin behar zaizu, eta lan egiteko gogoia izan behar duzu. Horixe... Eta ez da halako morroi baten lana, ez, talde-lana da. Ni, esaterako, beti-betikoekin lan egiten saiatu naiz. Talde bat osatu nuen, noizbait, eta hari eusten saiatu naiz, alderdi guztietan: dela argiztapenean, dela muntaketan... filma egiteko prozesu osoan. Taldea.

**Eskola sortu duzu?**

Ez dakit, eta, gainera, ez dut gai horietan sartu nahi.

**Futboleko jokatu izanak talde-lanari garrantzi ematen erakutsi dizu, edo ez dago bien arteko loturarik?**

Bi gauza zeharo ezberdin dira. Ez dago horiek batzerik, eta batu baldin badituz, inkontzientearen aginduz egin dut, ni ez naiz jabetu, ez dut talderik osatu nahi izan zinemako lanean, futboleko ekipoa jokatzeko gurenean bezala. Tira, “futboleko ekipoa”n ez, Errealean! Han bai ekipoa, taldea!

**Real Madrili sartu zenion gola kontatu izan duzunean, Errealekorik ez dago inor, zu baizik! Kontrarioak aipatzen dituzu, taldekiderik ez...**

Gaizki egina. Ez nuen nik bakarrik jokatu. Uste dut Igoak pasatu ziola baloia

Pazi, eta honek niri eman zidala area ertzean. Nik, iskin honi, horri eta hari, eta doi-doi sartu zen baloia atean. Hura poza! Aldi berean, ni besarkatzen lehena Ansola ez zedila izan erregutu nuen nire barruan, eta, hain zuzen, Ansola izan zen lehena! Handikotea zen nire aldean, zirtzil egin ninduen. Haren besarkada! Eta orduantxe bota zidaten bizian bota didaten lorerik politena. Baloia hartu eta zelai erditik ateratzera zihoala, Di Stefanok esan zidan: “Hori gola, pibe!”. Inoiz esan didaten gauzarik ederrena.

**Joan den irailan, Zinemaldiko ekitaldian, “euskarako sarituenen” tituluan aurkeztu zintuzten...**

Ez dakit nik. Eman zidaten lehenengo saria ez da oraingoa. Venezian izan zen. Sariak banatzen zituzten egunean, kazetari bati galdezka joan nintzaion. France Press-en berriemile zela uste dut. Gaurtxoria hura ere, koadrilatxoan iriteten ginen gauzean. Joan nintzaion eta: “Eta, zein dira sarituak?” Eta zerrenda erakutsi zidan. “Begira, halako, halako eta halako”, eta zerrendan azkeneko izena, nirea. “... eta, azkena, Elias Querejeta”. “Neu nauk hori!” esan nion. “Hi, zera izango haiz hi! Adarrean ez niri!”. “Baietz, bada, ergel hori, neu naizela!” Kar, kar, kar... “Ekoizlerik sarituenen”... Egundo horrelakorik!

**Ekoizlerik sarituenen... Filma saritua denean, nor jaso ohi du erramu koroa? Zuzendariak, aktore-aktoreak, gidoi-lead?**

Filmak. Filmak, eta hartan parte hartu duten guztiek. Oroz gain, zuzendariak. Baina, badiotsut, filmak. Filma bera da lehenengo saritua. “Halako filmak jaso du saria. Halako du zuzendaria; halako, ekoizlea; halako, muntatzailea...”, eta gainerako guztiak.

**Zuk ekoiztu dituzun film askotan, zeurea da ideia, zeurea gidioa... Zer duzu**



## PILOTARI

Hamabi urte nituela, pilotari izango nintzela esan zidaten. Profesionala. Beti ari nintzen pilotan. Bi pilotaleku ziren orduan Hernanin, Txirri eta Ezkerpareta. Txirri hura Hernaniko elizaren parte zen, pareta eskuinean zuela. Oso leku ederra pilotan jokatzeko. Ni hantxe beti. Eskua handitzen zitzaidanean, lurraren kontra zapaltzen zigun, zapatapean, lagunen batek. Hori hemen kontatzen dudanean, jendeak ez dit sinesten. “Hi burutik hago!”, esaten dute. Eta oraingo filma egin dugunean, *Al final del tunel*. *Bakerantza*, pilotak egiten ageri da kartzelan Kepa Pikabea, eta pilotaren inguruan ari ginela, grabazio taldeko bati eskuin eskuko behatz txikia erakutsi nion, desitxuratua dudana, eta ezin izan nion buruan sartu pilota jokatzeko okertu zitzaidala behatza!



**errazago, ideia bikaina izatea, ala hura gauzatzea?**

Ez dakit... Ez dut inoiz froga egin... Tira, bai, oraindik orain egin dut. 2009an *Cerca de mis ojos* zuzendu nuen, halabeharrez, esan beharko nuke. Egun batean, muntatze lanean ari ginela, alban nuenari galdetu nion: “Eta, nori esan behar diogu filma zuzen dezan?”. “Heuk zuzen ezak, ergel arraioa!” Eta horrela izan zen. Kito. Hainbat film ekoitzi eta gero, hura zuzendu nuen, eta ondokoak purrustada egin ondoren! Horra!... Nahiko elkarrizketa baduzu, ala?

**Laster naiz... Liburua ari naiz irakurtzen, Ciriaco Parraga margolariaren biografia. Bertan dioenez, lana amaitzeko duen aurreikuspena da artistaren talentuaren neurria. Lana amaitzeko gaitasunak –hura hobetzeko ahalmenak– emango du, aldiz, artistaren mailaren neurria.**

Bai. Izan ere, filmaren azken muntatzea baitezpadakoa da. Lan xehea da, guztiz, nahiz eta gaur egun egikera aldatu den. Teknologia berriek ekarri duten muntatzeko modua elektronikoa da, lehen ez bezalakoa, lehen baino lehenago amaitzen da orain lan hori, baina, zernahi modutan, baitezpadakoa da filma amaitzen asmatzea. Dena dela, margolariak esan zuen hori dela-eta, amaitzeko gaitasunean ez ezik, prozesu osoan neurtzen da artistaren talentua. Hastetik buru.

**Zer da “Querejeta zigilua”, lanak egiteko duzun manera pertsonal hori?**

Ez dakit. Ez zait gai hori interesatzen. Bizian behin ere ez naiz horrelakorik pentsatzen jarri.

**Zuk, pentsatu ez, egin.**

Nahikoa izan dut. Pentsatu ez. Egin. Ez “Querejeta zigilua”, ez gisako ergelkeriak! Kar, kar, kar... Ez dakit hori ere euskaltasunari zor diodan edo ez. Esan dizut zein diren nire deiturak!... Banuen lehengusina bat, zortzi ez, familiaren hogeita hamabi deitura buruz zekizkie-na. Euskaldunak, denak. Hura Hernanikoa ez, Urrestillatik zetorren, nonbait. Handik gatoz. Sortzez, Keixeta gara [Kerexeta].

**Zer erakutsi diozu Graziari, alabari?**

Ezer ez. Berak ikasi du.

**Dio Internet problema guztiz larria dela...**

Ez dakit, ez dugu horretaz hitz egin ohi. Zergatik ari da?

**Filmaren banaketa, filma gozatzeko modua: ez areto ez arreta, ez irudi kalitate ez ezer, zatika askotan...**

Arrazoi du horretan. Teknologia berriak ontzat ematen ditut. Zinema soinuduna hasi zenean bezala, uste zuten hura akabua zela, gauzak bere onera etorri ziren arte. Teknologia berrien kasuan, berdin,



gauzak arautu beharra dago, sistema koherente bat ezarri.

**Oteizaren, edo Txillidaren lan bat futbol-zelaiaren erdian jartzea bezala izan liteke bestela.**

Uste horretakoa naiz ni. Gauza bakoi-tzak bere lekua du... Oteiza eta Txillida aipatu dituzu...

**Bai.**

Oteiza eta Txillida.

**Bai.**

Biak ezagutu nituen. Gehiago Eduardo, Jorge baino. Bata bestearengandik urrun zebiltzan garaian... Jorgek tertulia bat eratu izan zuen, eta ni talde hartako txikiena nintzen. Eduardo, berriz, futbolaria izan zen, Errealeko atezaina, eta lehenengoa niri gaztigu ematen: "Elias, belauna hautsi nian. Bestela, jokatzeko segituko nian. Hemen ez zagok onik. Hik ere hobe huke besterik egin, gauza haiz-eta!". Oso adiskide ginen. Irailean, azkeneko lana estreinatu genuenean, han zen haren alaba, Susana...

Jorgerekin baino askoz harreman estuagoa izan nuen Eduardorekin. Elkarrekin joaten ginen Donostiatik Hernanirainoko tranbian. Hiru ordu laurdeneko bidea! Hantxe gure hizketaldia. Gero, nagusitan, gogoan dut Donostiako Zinemaldia zela, Victoria Eugenia ondoko



tabernan, terrazan, biok berriketan. Sartu da jendea filma ikustera, agurtu gaitu pasadizoan, bukatu da filma, irten dira, eta gu hantxe, artean berriketan! "Ez da posible, zertaz ari zarete, ordea, jakin baliteke?". Gu, futbolaren inguruan, besteak beste!

**Al final del tunel. Bakerantza duzu lanik berriena.**

*Asesinato en Febrero* izan zen lehenengo, *Perseguidos* gero, oraingo *Bakerantza* hau hirugarren. Horra trilogia, kazetari eta kritikariek esan dutenez.

Trilogia asmorik gabeko trilogia. Guk ez genuen asmorik. Baina horrela gertatu da. Hurretik segitu dut gaia, interes handikoa izan dut beti. Buesaren heriotzaren berri izan orduko hasi nintzen lehenengo zirriborroak idazten, pantailan ikusiko zena adierazten. Ondoren, *Perseguidos* egitea etorri zitzaidan burura, hau da, egunero ondoan bizkartzainak zituztela bizi zirenen inguruko lana. Azkenik,

## EUSKAL HERRIA

–Futbolzalea ez, errealezalea ez, ni Errealekoa naiz!... Forgesen andrea hernaniarra dela? Ez nekizun. Eta Forges athleticzalea? Segurua dute saltsa etxean orduan!

**–Asesinato en febrero filmaren sinopsian irakurri dugu: "Probintzia bateko hiriburu koxkor batean...". Horrela ikusten gaituzue, gaituzte, Madrildik euskaldunok eta Euskal Herria? "Probintzia bateko hiriburu koxkor"?**

–Euskal Herria? Nire herria da, arraioa! Ez dakit txikia den, ala handia, ez dut behin ere pentsatu.

duela bost urte, ezker abertzaleko zenbait lagunekin hitz egin nuen, ikusirik ETARI armak uzteko eskatzeko gogo ezinago garbia zutela. Lagun horietako batzuek garrantzi handia izan dute azkeneko urratsa gauzatzeko orduan. Behin betikoa dela uste dut.

**Intuizioa, sena... Filma estreinatu eta hilabetera, ETAK borroka armatua bertan behera utzi zuela iragarri zuen.**

Edozein momentutan espero nuen albistea. Krisialdiak izan dira, geldiuneak... Horra Barajasen gertatua –geldiunea, zalantzarik gabe–, baina azken pausoa emateko bidea bilatzen segitzeko asmoa, ETAK armak uzteko, esan nahi dut.

Eta utzi ditu.

**Orain biktimak dira hizpide. Erran delako trilogiaren laugarren atala ote?**

Ez dakit, ez dut pentsatu. Baina, erne!, GALEK ere biktimak eragin zituen! Gogoan hartu, ez ahaztu hori, gero! ■

# Nola egin aurre iruzur fiskalari?

NEREA PIKABEA  
KAZETARIA

**Z**ergadun guztiek araudiari jarraituz ordaintzen dutela bermatzea da gobernuen lana, inork ez diezaion ihes egin betebeharrak. Hala ere, ezkutuko ekonomia eta iruzur fiskala ogasun arduradunen buruhauste handietako bat dira. Iruzur fiskala Europako handienetakoa da Espainiako estatuan. Barne Produktu Gordinaren ia lautik bat ez da deklaritzen, edo ezkutuan egiten diren diru mugimenduak dira. Zenbaitek uste du krisia dela eta egin diren murrizketak egin beharrik ez zela izango iruzur fiskalari behar bezala aurre egin izan balitz. Bizkaiko eta Gipuzkoako foru ogasun arduradunen eta Espainiako ogasun ikuskatzaileen iritzia jaso ditugu. Arabako Foru Ogasunak hasieran erreportaje honetan parte hartzeko interesa azaldu arren, azkenean ez du iritzia emateko biderik ireki.



JOSE MARIA IRUARRIAGA,  
Bizkaiko Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza  
diputatua:

*Hezkuntzan  
eta kontzientzia  
kolektiboan lan egin  
beharra dago*

**Bizkaian iruzurra kuantifikatuta al dago? Zein da kopurua?**

Azken 20 urteetan, Euskadiko iruzurra-  
ren kuantifikazioari buruzko hainbat  
azterlan argitaratu dira. Horien arabera,  
EAEko iruzurren maila herrialde aurre-  
ratuenen antzekoa da, eta guztietan ageri  
dira Espainiako estatuan baino ehuneko  
txikiagoak.

**Zein iruzur-mota aurkitu da Bizkaian?**

Egindako azterketaren ondorioz sektore  
“sentikor” hauetan jarduten ari gara:  
profesional liberalen eta langile autono-  
mo edo auto-enplegatuen egiturazko  
iruzurra erkidego barruko BEZean,  
higiezinen iruzurra, industria-prozesue-  
tako hondakinen salmenta, eskualdake-  
ta-prezioak, eduki ekonomikorik gabeko  
fakturak, modulu-tako enpresekiko iru-  
zurra, enpresak berregituratzeko eragike-  
tak, jolas-makinak, kostu baxuko pro-  
duktuen merkaturatzea (normalean  
Asiatik datozenena)...

**Iruzurra deskubritu eta zordun/iruzur-  
gileekin harremanetan jarri ondoren,  
zenbatek aitortzen dute iruzur egin  
izana?**

Bi iruzur-mota bereizi behar dira: iru-  
zur txikia, aitortzen aurkeztu diren

akatsen ondorioz sortu eta epe laburrean antzeman eta zuzentzen dena tresna informatikoek egiten dituzten datu-gurutzaketen bidez. Eta beste iruzurmota bat, inkongruentziaz sumatu daitekeena, baina administrazioaren esku ez dagoen dokumentazioa ikertu eta aztertzea eskatzen duena, kuantifikatu ahal izateko. Azken kasu horretan, ikerketa-lanak gauzatu behar direnez, froga egokiak lortzeko tramite jakin batzuk egin behar dira prozedura arautuetan, eta, edonola ere, zergapekoen eskubideak errespetatu behar dira.

### **Zein neurri hartu dira iruzurrari aurre egiteko?**

Aztertuko diren zergadunak aukeratu behar dira, eta ahalik eta ikerketarik eraginkorrena egin, pertsona horrek egin duen iruzurra guztiz deskubritu ahal izateko. Hautatzeko orduan, informazio ekonomiko eta harreman pertsonal eta profesional ugari aztertzeke beta ematen digun tresna bat erabiliko dugu. Auditorretza Informatikoko Unitatea ere sortu dugu eta ikertzaileei prestakuntza egokia eman diegu.

### **Zure ustez, zer egin beharko lukete erakundeek iruzurra saihestu edo horren kontra gehiago borrokatzeko?**

Azken 8 urteetan Bizkaiko Foru Ogasunak 100 txosten baino gehiago bidali dizkio Zerga Ministerioari, Ogasun Publikoaren kontrako delituen aztarnak sumatu direlako. Hortik 42 zigor-epai irten dira eta iruzurgileak guztira 70 kartzela-urte baino gehiagotara zigortu dira. Belaunaldi berrien hezkuntzan eta gizarte gisagaratu behar dugun kontzientzia kolektiboan lan egin beharra dago. Zerga-iruzurrarekin lotutako sentsibilizazio-kanpainak egiten ditugu aspalditik.

### **Zer iruditzen zaizu Eusko Jaurlaritzak Legebiltzarrean aurkeztu duen iruzurraren aurka borrokatzeko plana?**

Foru ogasunek koordinaturako jardueran planak errealitatea dira, eta, beraz, pro-

posamenak ez du ezer berririk eranstean. Azken urteetan, Nafarroako Foru Ogasuneko ordezkariak EAEko foru ogasunen aldizkako bileretan parte hartzen duenetik, lankidetzan indartu egin da.

Halaber, Ertzaintzako delitu ekonomikoaren unitatearekiko eta organo judizialekiko nahiz Estatuko beste segurtasuntalde batzuekiko lankidetzan nabarmen areagotu da hainbat ikerketatan. ●



**XABIER OLANO,**  
Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasuneko zuzendari nagusia:

## *Iruzurrik potoloenak enpresa jarduera eta profesionaletan topatzen ditugu*

Iruzur fiskala kuantifikatuta dago? Gipuzkoari dagozkion datuak esku artean dituzue? Zenbatekoa da kopurua?

Zaila da oso Gipuzkoan egiten den iruzur fiskalari zenbaki zehatza jartzea.

Halere, hurbilpen ahaleginak egiten dira. Euskal Herriko Unibertsitateak egina du saiakera bat. Gipuzkoan jaso ditugun azken datuen arabera, Zerga Ikuskaritza Zerbitzuak ehun milioi euro inguru azaleratzen ditu urtero. Bestalde, kudeaketa zorrotza eginez ikuskaritza baino gehiago lortzen da. Diru asko, gehiegi, edozein modutara.

### **Zer motako iruzurra aurkitu duzue Gipuzkoan? BEZ (Balio Erantsiaren gaineko Zerga), PFEZ (Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga), Sozietate Zerga, etab.**

Iruzurrik potoloenak enpresa jarduera eta profesionaletan aurkitzen ditugu. Berreskuratzen diren zergen %80 Sozietateen Zergan eta BEZean oinarritzen dira. PFEZari dagokionez, soldatapeko langileek nahiko zintzo betetzen dituzte beren eginbeharrak. Aldiz, moduluak erabiltzen dituzten jarduera profesional zein inbentarioen kasuan arazo gehiago izaten da.

### **Iruzurra antzeman eta zergadunarekin harremanetan jarritakoan, zenbatek onartzen du berehala iruzurra egin duela? Berehala onartu eta ordaintzen dutenak asko dira, ala askok luzatzen dute prozesua?**

Ez da samurra izaten iruzurra egiten harrapatu izana aitortzea. Baina gehienguan, beste erremediorik ezean, onartu beharra izaten dute. Ikuskaritza proze-



D

suak luzeak eta zorrotzak izaten dira, baina gehienetan, ia beti, adostasunez sinatzen dira eta epe laburrera ordaindu ere bai, isun eta guzti.

### Zer-nolako neurriak hartu dituzue iruzurrari aurre egiteko?

Lehenik eta behin, araudian zeuden ihesbideak moztu behar dira eta horretan ari gara. Bigarrenik, ikuskaritza lanak eraginkortasunez egin behar dira, giza baliabideak eta informatikaren aurrerapenak uztartuz. Hirugarrenik, eguneroko kudeaketan begiak zorrotz mantendu behar dira, gipuzkoarron baliabideek ihes egin ez dezaten. Eta azkenik, azpimarratu nahi dut iruzur jokabide batzuk delitua direla, eta epaitegietara jotzen dugu halakoetan. 19 kasutan delitua antzeman dugu (36,6 milioi euro) eta zorrak kitatzeaz gain, epaitegietan erantzukizunak eskatu dizkiegu.

**Instituzioek nola lan egin beharko lukete iruzurrari aurre egiteko? Zer mekanismo abian jartzea proposatzen duzue?** Komenigarria eta derrigorrezkoa da elkarlanean aritzea eta informazioa elkartrukitzea erakunde desberdinen artean. Iruzurra egin nahi duenak leku guztietan egin nahi izaten du, administrazioen arteko zirrikituak baliatuz. Horrexegatik, iruzurgileari aurre egiteak denon arteko lehenasuna izan behar du.

### Iruzur fiskalari aurre egiteko plana aurkeztu da Eusko Legebiltzarrean. Zer iritzi duzue horri buruz?

Ongietorriak izan bitez iruzurrari aurre egiteko plan guztiak, baina ezin da ahaztu ogasuna eta iruzurra foru diputazioen ahalmena direla. ●



JOSE MARIA MOLLINEDO,  
Ogasun Ministerioko Teknikarien Sindikatua-  
ren (GESTHA) idazkari nagusia:


## *Iruzur fiskalaren ia %72 korporazio handiek egindakoa da*

### **Iruzur fiskala kuantifikatuta dago? Zein da Euskal Autonomia Erkidegoari dagokion datua?**

Egin diren azterketa gehienek, gure herrialdeko Barne Produktu Gordinaren %20 eta %25aren artean kokatzen dute Espainiako ezkutuko ekonomia. Ogasun ministerioko teknikariok eskuartean darabilgun kopurua %23,3koa da; urtean guztira 245.000 milioi euro dira.

Euskal Autonomia Erkidegoan ezkutuko Barne Produktu Gordinaren portzentaje balioztatua Espainiako batz bestekoa (%23,3) baino txikiagoa da, %20,6 ingurukoa; guztira, 13.560 milioi euro dira Administrazioak urtero galtzen dituenak. Horietatik 8.978 milioi euro izaera fiskalekoak dira. Beste 4.581 milioi euro, berriz, lan arloari dagozkionak.

Iruzurra gutxien zabaldua dagoen seigarren erkidegoa da; bere aurretik honako hauek daude: Balear Uharteak eta Extremadura (%19,2 bi kasuetan), Madrilgo Erkidegoa (%19,6), Nafarroako Foru



Erkidegoa (%20,0) eta Asturias (%20,2). Hala ere, ezkutuko ekonomia kopuru orokorretan aztertzen badugu, ikusiko dugu Euskadi dela kalte gehien duen seigarren erkidegoa.

## Zer motako iruzurra da ohikoena?

Zerga Administrazioako Estatu Agentziak (AEAT) langileen, autonomoen eta enpresa txikien errentetan eginiko iruzurra ikertu du batez ere, bere ahalegina iruzurgile handietara bideratu beharrean; hain zuzen ere, multinazionalak eta dirutza handia dutenak dira iruzurgile nagusiak.

Iruzur fiskal osoaren ia %72 korporazio handiek egindakoa da. Hori gutxi balitz, baliabide gehien dituzten enpresa handiak dira, hain zuzen, ogasunari gutxiago ordaintzen diotenak, euren zerga-ordainketa gutxitzeko ihesbideak erabiltzen baitituzte.

Gauzak horrela, Espainiako Elkartearen Gaineko Zerga %30ekoa da enpresa handientzat eta %25ekoa, berriz, enpresa txikiagoentzat. Baina konpainia handiagoek ordaindu beharreko tasa enpresa txikiarena baino 5 puntu txikiagoa da; izan ere, konpainia handiek hainbat abantaila erabiltzen dituzte: amortizazio askatasuna, bat-egiteak eta banantzeak, zerga-ordainketa baxuko lurraldeetan *holdinga*, edota atzerriko baloreak dituzten erakundeak. Enpresa txiki eta ertainek ez dute horrelako formularik erabiltzen. Gainera, ihesbide fiskaleko tresnak erabili eta legearen muga gaintzen dute: transferentzia prezioak edota paradisu fiskaletan filialak izatea lirateke erabiltzen diren ihesbide fiskaletako batzuk.

Etzegintza eta higiezinaren enpresek egindako salerosketa operazio ilunen tanke-rako jardueretan gertatzen da iruzurra-ren zati handi bat.

## Nola egiten da lan ustezko kasuak aurkitzeko? Nola aurkitzen dira?

AEAT erakundeak araubide erkideko autonomietan bizi diren zergadunen errenta aitortpenak begiratzeko eta ikeritzeko agintzen die ogasun teknikari eta ikuskatzaileei; banan-banako zerbitzu batzuen bitartez aukeratzen dira.

Hala, Zerga Administrazioako langileen %80 autonomoen eta enpresa txikien errenta aitortpenak egiaztatzen aritzen dira. Langileen %20 bakarrik aritzen da konpainia handien iruzur korapilatsuenak ikertzen.

Gainera, ustez ihesean ibili diren zergadun handiei aitortpen osagarriak egiteko aukera eman izan zaie; denboraz kanpo eginak izan arren, borondatezko aitortpen zat jotzen dira. AEATEk tramiteak luzatzeagatik edo prozedurak agintzeagatik gertatu izan da hori; asko eta asko kasu ezagunak dira.

## Nolako proposamenak eskaintzen ditu GESTHA-k iruzur fiskalari aurre egiteko? Zer mekanismo proposatzen dituzue horretarako?

Ezkutuko ekonomiari eta lan- eta zerga-iruzurrari buruzko aldizkako azterketa ofizialak egitea proposatzen dugu, lurraldeka, sektoreka eta zergaka bereizita. Horrez gainera, lurralde desberdinetako (estatu, erkidegoa eta tokian tokikoa) zerga administrazioen artean benetako lankidetzaren beharrezkoa da; horrekin batera, iruzur fiskalaren kontrako lana eraginkorra izan dadin, zerga-ordainketa datu base bat ere sortu beharko litzateke, zerga bilketaren ardura duten erakunde guztiek erabiliko dutena.

Bestalde, zenbait aldaketa egin behar dira araudian berehala, enpresa operazioak ordaintzeko esku-diruaren erabilera

murrizteko eta gehiegikeriak saihesteko: Kapital Aldagarriaren Inbertsio Sozietatea –SICAV deiturikoa– moldatu behar dago, iruzur fiskala egiteko benetako zirrikitua baita.

PFEZa arautzerakoan beharrezko aldaketak egitea komeniko litzateke, lanaren eta kapitalaren errenten bikoiztasun fiskaletik sortutako progresibitatearen kontrako eraginak gutxitzeko.

## Zenbat diru eskura dezakete administrazioek iruzur fiskala sakonago kontrolatzeko?

Ezkutuko ekonomiaren maila hamar puntu gutxitzea lortuko bagenu eta BPGaren %13ra iritsi, eta horrela gure inguruko Europako herrialdeen batz bestekora hurbiltzea lortuko bagenu, 38.500 milioi euro gehiago bilduko genituzke, Gobernuak 2011rako espero duen zor publikoaren %65 hain zuzen.

Beraz, gure ustez, murrizketak egin beharrean, Administrazioak jokabide ausartagoa izan behar du iruzur fiskalaren kontrako borrokan; horixe izan behar da bere lehentasuna. Izan ere, murrizketek eta zerga igoerek gutxiago dutenei eta gehiago ordaintzen dutenei eragiten die gehienbat.

Hori gutxi balitz, ezkutuko ekonomiak hainbat muga ekartzen ditu: osasun, hezkuntza eta gizarte laguntza zerbitzuen hornidura publikoa; zuzentasun falta sortzen du zerga ordainketan, aitortpena zuzen egiten dutenek jasaten baitituzte kargak. Baina, egiten ez dutenek aitortpena egiten dutenek ez dituzten gizarte onurak eskuratu ditzakete. Horrez gain, ezkutuko ekonomiak kalte egiten dio enpresen lehiakortasunari eta lan merkatuari. ■

EUSKALTZAINDIAREN ARAUAK:

# Europako geografia-izenak nola idatzi euskaraz

XABIER AMATRIA  
 URTZI BARRENETXEA  
 RAKEL OLEA  
 IZASKUN ZUNTZUNEGI  
 IVAPEKO ADMINISTRAZIO HIZKERAREN ATALA



**B**adira geografia-izen asko sarritan agertzen direnak komunikabideetan, testu-liburuetan, literaturan zein administrazioko jardunean. Izen horietako asko ez dira berdin idazten hizkuntza guztietan eta, horren aurrean, ezinbestekoa da izenen grafia euskaraz ere finkatzea zalantzarik izan ez dadin.

Euskaraz, Euskaltzaindia da izenen grafia finkatzearen eta normalizatzearen ardura duen erakundea eta horrela egiten du aldiro-aldiro argitara ematen dituen arauen bidez. Kanpoko leku-izenek dagokienez, Euskaltzaindiak Europako geografia fisikoaren eta politikoaren euskal exonimoen corpusa osatu du zenbait arauen bidez.

Orrialde hauetara arau guztiak ekartzea ezinezkoa denez, hiru hauek bildu ditugu: 38. araua (Munduko estatu-izenak, herritarren izenak, hizkuntza ofizialak eta hiriburuak), 157. araua (Europako hiriak) eta 159. araua (Europako toponimia fisikoa).

Artikulu honetan, labur-zurrean, goian aipaturiko arauetan jasotako maiztasunik handieneko geografia izenak aukeratu ditugu, bi zutabetan banatuta: ezkerrekoan, jatorrizko izenaren izendapena ageri da, eta eskuinekoan, Euskaltzaindiak erabakitako euskarazko forma. Guztiarekin ere, hemen jasotako arauak zein Euskaltzaindiak orain arte emandako guztiak erakundearen webgunean daude ikusgai, helbide honetan:

<http://www.euskaltzaindia.com/argitalpenak/arauak>

## Europako hiriak

Jatorrizko izena	Euskarazko forma
Bologna	Bolonia
Brugge/Bruges	Brujas, Brugge
Brussel/Bruxelles	Brusela
București	Bukarest
Cartagena	Cartagena
Coimbra	Coimbra
Den Haag	Haga
Dresden	Dresden
Elx/Elche	Elx
Firenze	Florentzia
Genova	Genova
Hannover	Hannover
København	Kopenhage
Köln	Kolonia
Kraków	Krakovia
Leuven/Louvain	Lovina, Leuven
London	Londres
Maastricht	Maastricht
Madrid	Madril
Magdeburg	Magdeburg
Messina	Messina
München	Munich
Padova	Padua
Porto	Porto
Ravenna	Ravenna
Roma	Erroma
Sarajevo	Sarajevo
Stockholm	Stockholm
Terrassa	Terrassa
Venezia	Venezia
Warszawa	Varsovia
Wien	Viena
Београд/ <i>Beograd</i>	Belgrad
Грозный/СовлЖа-ГПала	Grozny
Чьорнобыль/Тхорнобыл	Txernobyl

## Uharteak

Jatorrizko izena	Forma zuzena(k)
Arcaibh	Orkadak / Orkada uharteak
Corsica	Korsika
Éire	Irlanda (uhartea)
Eivissa	Eivissa
Føroyar	Faroeak / Faroe uharteak
Great Britain	Britainia Handia
Κύπρος/Kibris	Zipre (uhartea)
La Palma	La Palma (uhartea)
Mallorca	Mallorca (uhartea)
Sardigna/Sardegna	Sardinia
Waddeneilanden	Frisiako uharteak

## Ibai, itsaso, itsasarte eta beste zenbait

Jatorrizko izena	Forma zuzena(k)
Bizkaiko golkoa	Bizkaiko golkoa
Çanakale Boğazi	Dardaneloak / Dardaneloen itsasartea
Como	Comoko aintzira
Dordogne	Dordoina (ibaia)
English Channel	Mantxako kanala
Guadalquivir	Guadalquivir (ibaia)
Istanbul Boğazi	Bosforo (itsasartea)
Каспийское море	Kaspiar itsasoa
Mar Ionio / Ιόνιο Πέλαγος	Itsaso Jonikoa
Mare Adriatico / Deti Adriatik	(Itsaso) Adriatikoa
Μαύρον Θάλασσα / Marea Neagră	Itsaso Beltza
Skagerrak	Skagerrak itsasartea
Stretto di Messina / stritto di Messina	Messinako itsasartea
Vienanmeri / Белое море	Itsaso Zuria
Волга	Volga (ibaia)



Eta biltzen cen hiri hurbiletako communa-ere Ierusalemera,  
ekarten cituztela eriak eta spiritu satsuez tormentatuac;  
eta guciak sendatzen ciraden. Orduan iaiquiric Sacrificadore subiranoa,  
eta harequin ciraden guciac (cein baita Sadduceuen sectá)  
invidiaz bethe citecen.

(Leizarraga, Apost. Acteac, CAP V., 17.)

# Sokratesenean


OSKAR ARANA  
ITZULTZAILEA

**A**TENAS. EREMU IDORRAK eta bero lehorra aireportutik hirirainoko bidean; atsegin izan du treneko joanaldi laburra. Beha jarrita lasaitu egiten da, laztandu egiten ditu paisaiak, bihotzean esker ona, bere baitako paisaia ezagun eta itogarrietatik ateratzen laguntzen diotelako, leunki. Eta, hala, ez daki irribarra eremu elkorrei ote darien, edo bere proiektzioa den. Proiektzioa da, baina atsegin du bestetara dela irudikatzea. Ahots ezti eta jostaria bagoian, megafoniaz geltokien izenak esanez ingelesez eta grezieraz. Hasia da urrinen geografia zehazten, batzuk mikatzegiak, beste batzuk goxoegiak, guztiak ere Mediterraneoko beroaren iragazkitik iragazirik biziagoak, eskualde horretan beste inon aurki ez daitezkeenak. Zirrara berriz, trenetik Monastiraki plazara atera eta, atzean, burua jiratuta, harkaitzezko muino garai bat, Akropoli argiztatua ikustean, eta, urrezko harribitxi baten gisa, Erectheion tenpluaren gibelaldeko lau zutabe lerden garaiak, arratseko urdin bizia hondoan, hiriaren antzina-antzina jainkosa zaindariaren omenezko tenpluaren diosala harrigarria. Akropolia, amildegiaren ertzeko hiria greziera

zaharrez, halakoxeak izaten baitira beti garaipenak, amildegitik urrats erdira eskuratu ohi dira.

Monastiraki plazatik gertu dauka ostua, albo-kale batean barrena, bizpahiru solairuko etxe hautseztatu, duin-guraz inguratutako karrika arrunt, dekadente batean. Gazteentzako ostua da. Laugarren solairuko logela kolektibo batean eman diote lo-lekua; bainugela bat, dutxa estu bat, komun bat eta konketa soil bat, hamar lagunentzako apailatutako bost ohatze bikoitzeko gela batean. Terraza handi samar bat, eta bertatik akropoli argiztatua agerian. Dutxa hartu eta kalera atera da. Iluntzen ari du. Kalean jendea barra-barra. Gaua, udan, gozatzeko tartea da atenastarrentzat, baita turista ugariarentzat ere. Eta lehia atzematzen du, egun sargoriak zabaldu arteko epeltasunezko tarte horretan bizitza zernahi gisatan gozatzearren. Garagardoa hartu du Akropoliaren peko ostatu bateko terrazan, liluraturik, hipnotizaturik bezala, betierekotasunaren diosala gomutan tinko iltzatu nahian. Hadrianoen liburutegia alde batean. Atenasko foro zaharraren hondarrak haraxeago. Urrun barik ibiliko zen Sokrates, bere buruaz beste egitera deliberatu zenean.

Lo egin du goizean berandu arte, atsenden hartu beharrez. Leku berrian ohitzea nahikoa lan izaten du, betiere poz ttipia barnean: ostatuko harrerako giroari erreparatu, gertuen diren kaleetan ibili, hotsak entzun, usainak aditu, lurraldea apurka-apurka esploratu, libururen bat beti lagun, gustuko kafetegi bateko terrazan eseri eta orain jendearengan, orain liburuan, pausatuz begiak, hurrengo bi egunetan egin behar duena antolatzen. Berandu arte egon da bezperan logelako terrazatik muinoari so, logura sentitu arte, auzoan isiltzen ez ziren hainbat eta hainbat hots, zakarrak, baina aldi berean atseginak –biziaren oihartzun zolia zekarten– itzali diren arte. Arratsaldean ostatura egin du. Atea ireki eta irribarre zabal-zabal batekin egin du tupust. Neska ilehori batekin egin dio diosala, ingelesez, irribarre argitsu batekin, motxila desegiten ari dela –Kaixo, Joe naiz–. Berak ere bere burua aurkeztu du, harrera hain atseginak eragin dion poza trakeski ezkutatu. Emakume ederra da, lerdana, bizia. –Oraintxe iritsi naiz, beroak itota nator, dutxa bat hartu beharra daukat–. Ingalaterra hegoaldekoa omen da. Aztoratuta samar sumatu du. –Banoa kalera, oinetako batzuk erosi



nahi ditut, sandaliak. Haserretu egin naiz adiskide batekin. Ez nago ondo—. Logelan geratu da. Lo egin du. Ohean etzanda dagoela itzuli da Joe kaleko osteria egitetik. Gustatu egin zaio, hasiera-hasieratik, irribarreagatik, zolitasunagatik, bat-bateko aitopenengatik, urduritasun eta oldarkortasun antzeko-arengatik. —Hara, nire sandalia berriak—. Politak direla esan dio. Beste irribarre zabal batek argitu du haren aurpegia. Elkarrizketa labur bat etorri da ondoren. Bakoitzak zertan lan egiten duen, zer itxura hartzen dioten hiriari. Urduri jarri da bat-batean, ingeles traketsarengatik, bera han aurkitzea gustuko izan duela antzemango diolakoan, arratsalderako zeregin jakinik ez duela-eta errukarri iritzi-ko diolakoan. Berak ere osteratxo bat egingo duela esan dio, arratseko giroa ikusi nahi duela. —Gaur gauerako festatxo bat antolatu dut, Facebooken; atzo bete nituen urteak, eta hemengo Atenasko hainbat eta hainbat lagun gonbidatu ditut, ez ditut ezagutzen ordea bertatik bertara. Ez dakit zenbat bilduko garen. Ostatu baten agindu dut festa. Etorri nahi duzu? Hemendik atera eta lehenbizikoan ezkerretara, eta hurrengoan ere ezkerretara, eta, gero, hirurehun bat metro aurrera; *Paradise* du izena ostatuak. Han ikusiko dugu elkar, nahi baduzu—. Eskerrak eman, joango dela agindu, eta atera egin da. Bitxia iruditzen zaio gertatutakoa. Arraroa. Baina festa horretara joan egingo dela egin du

bere baitan. Joe ikusi nahi du berriz. Ea ezaupiderik ematen dion.

Gaua iritsi eta han abiatu da, lehenengo ezkerretara, bigarrena ezkerretara. Omonia auzoan sartzen ari dela ohartu da —ez du fama onik gida-liburuan—, hiribide luze ia argiztatu gabe batean behera. Gazte koadrilak ikusten ditu kalea zeharkatzen, ebaska, hiri-gerrillako formazioak irudi. Urduritzen ari da. Kale muturra argiztatuago dagoela hauteman du, eta, hurreratu ahala, han ikusten du *Paradise* ostatua. Sartu da. Eskailera batzuk aurkitu ditu, eta, eskailera-buruan, ate handi bat. Ireki du. Areto handi bat da, anfiteatro baten gisakoa. Mahai bi daude erdian. Batean hiru lagun daude, beltzez jantzita, burutik oinetaraino estalita. Anfiteatroko harmailetan jendea dago eserita, gisa berean mozturroturik. —Eseri, eser; zure zain geunden—, esan dio epaimahaiburu egiten duenak. —Epaitzera ekarri zaitugu hona. Hor, harmailetan ikusten duzun jende horren artean, hainbat eta hainbat lagun daude zuk kaltetuak. Hona hemen zergatik kondenatzen zaitugun: zeure buruari besteei baino leialago izateagatik, eta ez izateagatik. Zoriontsu izan nahi izateagatik. Maitasun erromantikoan sinesteagatik, eta ez sinesteagatik; psikoanalisian sinesteagatik, eta ez sinesteagatik, eta psikoanalisiaz bestekotan sinesteagatik, eta ez sinesteagatik; lizunkeriak amesteagatik eta gauzatzen saiatzeagatik, eta ez saiatzeagatik; por-

nografia erabiltzeagatik, eta ez erabiltzeagatik; besteen joera sexualak errespetatzeagatik, eta zuk zeurea izateagatik. Giza eskubideetan sinesteagatik, eta zure giza eskubideen urratzearen kontra agertzeagatik... eta hainbat eta hainbat kargurengatik. Beraz, honako kastigu hau ezarriko dizugu guztiagatik: matrailzurra hautsiko dizugu, eta gailu bat ipiniko, nanoteknologiakoa, zure prozesu eta datu psikofisiko guztiak ordenadore batean erregistratzeko. Erregistro hori guztien eskura egongo da. Intimitaterik gabe biziko zara hil arte. Hau guztia, esperimendua ere bada, norbait behar genuen-eta...; betiere, gizakiaren aurrerapenerako eta munduaren hobe beharrez. Gainera, zu oztopoa zara sortu nahi ditugun gizarte eta gizaki berrietarako—. Hori esanik, oihuz esan du —GUK ZU kondenatzen ZAITUGU!!!—. Eta, gero, garrasika, —GUK GURI...!!!!—. Eta harmailetakoez —DIGUGU, DIGUGU!!!!—...

Hustu da aretoa. Bakarrik geratu da. Lau edo bost minuturen buruan bera ere atera da. Ostaturantz egin du. Iruditzen zaio ez ote ziren Atapuerkako gizakiak garuko hauek baino osoagoak. Ilunpean artetik Erectheion hautematen du. Sokrates datorkio gogora. Bere buruaz beste egitea beste aterabiderik ez zuen ikusi.

Atenas zaharra polisa zen.

Baziren legeak... ■

# IKASYS: norberaren trebakuntza sistematikoa ordenagailu bidez

JOSUNE GEREKA, OIHAN ODRIUZOLA ETA MAITE GOMEZ  
 IKASYS PROIEKTUA. IKASTOLEN ELKARTEA



**I**KASYS Ikastolen Elkartean azken urteotan edukien sistematizazioa helburu duten material didaktiko digitalei buruz egindako ikerketaren ondorioa da. Helburu hori ez da gaurkoa eta orain arte tresna desberdinak erabiliz bideratu izan da, besteak beste, testu liburuak, lan koadernoak eta irakasleak sortutako ariketa orriak. Abiapuntua hori izanik eta baliabide digitalen integrazioak dakartzan onurak aprobetxatuz, sistematizazioa modu eraginkorragoan lantzeko tresnak garatu ditu proiektuak. IKASYSen berrikuntza bi alderditan oinarritzen da. Batetik, hiru osagai batera uztartzen dituen sistema da: hardwarea, softwarea eta eduki kurrikularrak; bestetik, ordenagailua ikasgelan bertan baliatuz, autonomoki jarduteko tipologia anitzez osatutako eta zailtasun mailaren arabera ordenatutako jarduera sekuentziak ditu ardatz.

Sekuentziok Derrigorrezko Hezkuntzako arlo nagusietako eduki kurrikularrak kontuan hartuz sortu dira, hain zuzen ere, Euskara, Gaztelania, Ingelesa, Ingu-runea (Natur Zientziak, Fisika eta Kimika, Biologia eta Geologia eta Gizarte Zientziak) eta Matematika ikasgaietan. Hardware mailan bi osagai nagusi ditu: bata, eskola beharretara aise egokitzen den tresna informatiko txiki mugikorra; bestea, biltegitratzeko eta bateriak karga-

tzeko balio duen armairua. Softwareak hiru web aplikazio biltzen ditu: jarduerak sortzeko eta antolatzeko Designer aplikazioa, jarduerak exekutatzeko Trainer aplikazioa, eta, azkenik, ikasleen lanaren jarraipena egiteko Inspector aplikazioa.

Sistematizazioa helburu izanik, trebakuntza, memorizazioa eta ulermenaren garapena dira proiektuko jardueren muina. Gauzak horrela, jarduera horiek jardun kompetente baterako ezinbestean alde aurretik behar diren jakinbideak finkatzen, ezagutzak egituratzen eta guztiz premiazoak diren trebetasunak gartzten laguntzen diote ikasleari.

IKASYS proiektuaren aplikazioak hainbat abantaila dakartzala gauza argia da. Batetik, ikasleari ariketa tipologia ugaria eskaintzen dio, gainera, zuzenketa bat-batekoa denez, ez du zain egon behar irakasleak ariketak zuzendu arte. Bestetik, ikasle bakoitzak bere gaitasun eta beharretara egokitutako behar adina jarduera egiten ditu ikasgelan bertan eta norberaren ordenagailua erabiliz; ondorioz, autonomia sendotzen da. Azkenik, Inspector aplikazioa baliatuz, irakasleak noiznahi ikaslearen lanaren jarraipena egin dezakeenez, hobetze proposamenak azkarrago egiteko aukera du eta ikaslearen erregulatzeko gaitasunean eragiten du.

Proiektua 2008-2009 ikasturtean esperimentatu zen Lehen Hezkuntzako 2., 4. eta 6. mailatan eta lehen aipatutako bost arloetan. Esperimentazio hori Euskal Herriko Unibertsitateko Filosofia eta Hezkuntza Zientzien Fakultateko Hezkuntzarako Ikerketa eta Diagnosi-Metodoak Sailak ebaluatu zuen eta hainbat emaitza ondorioztatu ziren. Hasteko, IKASYS sistemarekin aritu ziren ikasleek errendimendu hobea adierazi zuten. Emaitza hori sendoa da, izan ere, ez zen ondorio isolatua izan, maila eta arlo guztietan errepikatu zena baizik. Horrekin batera, ikasleen autonomian, motibazioan, arretan eta metakognizioan ere hobekuntzak nabaritu ziren. Amaitzeko, sistemaren osagaiak egokiak zirela ondorioztatu zen.

Emaitza horiek proiektuari behar zuen bermea eman zioten eta, 2009-2010 ikasturtetik aurrera, hedapen fasean murgildu zen. Ordutik orain arte izan duen garapenari esker, proiektua, gaur, ikastoletan orokortuta dago eta gero eta gehiago dira ikastola saretik at egitasmoan parte hartzera animatzen ari diren ikastetxeak. Horrela, 1.200 ikaslerekin abiatutako proiektua, egun, 17.000 ikasle izatera iritsi da. Aldi berean, lan horrek bide eman du, IKASYS Home <http://home.ikasys.net/> proiektuaren bidez, eskola eremura begira sortutako materiala etxetara ere hedatzeko. ■

# Hirugarrenean, 75. zenbakiraino!

*Hiru ekinaldi behar izan zituen 'Administrazioa Euskaraz' aldizkariak bidean sendotzeko*

# 1986,

Herri-Arduralaritzaren Euskal Erakundeak *Administrazioa Euskaraz* aldizkariaren lehen zenbakia kaleratu du. Zuri-beltzean datorren agerkaria da, hamasei orrialdetan. Azalean, Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako idazkari Mari Karmen Garmendiaren agurra: “Ez dakigu Etxeparek bere kanta famatu hura idaztean euskara Administrazioa ere zabaldu beharra somatzen ote zuen. Nolanahi ere horretarako baldintzak ez ditugu duela gutxirarte gure esku izan. Eta poema bat idatzi edo irakurtzea

Administrazioiko bilera baten akta idatzi edota irakurtzea baino atseginagoa denik ukatu nahi izan gabe, inork gutxik jarriko du zalantzan bien beharra, poemarena eta aktarena, herri honen hizkuntza normalizatzerira iritsiko bada”... Aurrerago, herriaren zerbitzuan egongo den hizkuntza administratiboa finkatzeko zenbait abiapuntu ditu aipagai. Bi dira, nagusiki. Batetik, “hiztunek erabiltzen duten hizkuntzarekiko ahalik eta hurbiltasun handiena zaindu beharra”. Bestetik, “Administrazioaren hizkuntza

erraztu eta sinplifikatu beharra”. Amaieran, berriz, Administrazio hizkuntza finkatzeko bidean lehen urratsak egiten ari diren garaian, “herritarrentzako ulergarria eta baliagarria izango den hizkuntza bat sortzeko” aukera baliatu beharra gaineratzen du. Eta, orduantxe, aldizkari sortu berriaren helburua azaldu. “Aldizkari honen zeregina kinka horretan kokatzen denez gero, jorratzen joango diren bideen adierazle eta erakusle izatea besterik ez diogu opa”.



# 1986, Herri- Ardularitzaren Euskal Erakundeak *Administrazioa Euskaraz* aldizkariaren lehen zenbakia kaleratu du



## I. ZENBAKIA

Aldizkariak Eusko Jaurlaritzako sail eta sailordetza guztien berri dakar orrialde biko organigrama zabalean. Ezinago harrigarri zaigu gaur... Are harrigarriago, lehendakariak, sailburuek, sailburordeek, eta batzuen eta besteen idazkariak, kasurik gehienetan, “euskalduna”, edo “euskaldunberria” titulua eranstea dagokien karguari. Euskararen giza historia egiteko oinarriak jartzen ari garen honetan, adierazgarria da xehetasuna, inondik ere.

## ADMINISTRAZIOA ETA EUSKARA ELKAR HARTURIK

Urteak dira *Administrazioa Euskaraz* aldizkariarekin lehendabiziko harremana izan nuela. Artean, 4. hizkuntza eskakizuna prestatzen nabilen eta, bereziki, ariketak, gramatikari buruzko artikuluak eta testu luzeak erabiltzen nituen, azken horiek laburpenak lantzeko oso egokiak iruditzen zitzaizkidalako. Ikusten denez, oso erabilpen zehatza eta pragmatikoa aurkitu nion aldizkariari.

Handik urte batzuetara, hizkuntza eskakizunaren ardura kenduta, eta IVAPeko Prestakuntza Zerbitzuarena neureganatuta, bestelako artikuluek erakartzen zuten nire arreta. Aldizkariari esker, esaterako, parada izan nuen giza baliabideen zenbait *gururen* hitzak euskaraz ere irakurtzeko, euskara dotore, aberats eta, aldi berean, ulergarrian. Ez zen makala gero, Juan Carlos Cubeiro, Juan Luis Urcola, Jordi Joly, Marisa Salanova eta enparauen testuak euskaraz izatea, eta gainera, dohainik! Zer esanik ez, jakintzaren eta kulturaren pertsonaia unibertsal batzuei egindako elkarrizketa luze, bizi eta mamitsuak: Bernardo Atxaga, Umberto Eco, Noam Chomsky, Joshua Fishman, William Douglas, Luis Rojas Marcos...

Urteak joan urteak etorri, aldizkaria barrutik ezagutzeko aukera paregabea izan dut IVAPeko zuzendaria naizen aldetik, aldi berean, aldizkariaren zuzendaritza-batzordearen kide bezala. Ikuspegia desberdina, ardurak ere bai, baina bere horretan dirautenak dira 1993tik hona *Administrazioa Euskaraz* aldizkariak euskararen normalizazioarekin eta modernizazioarekin dituen konpromisoa eta ardura, ukaezina baita aldizkari honek, bere txikian, euskaldunen artean lortu duen oihartzuna eta egin duen ahalegina oso ohikoak ez ziren gaiak eta pertsonaia euskararen mundura hurbiltzeko.

Bihoakie hemendik neure esker ona aldizkari hau posible egin duten eta egiten duten guztiei, IVAPeko lankide, idazle, kazetari, maketatzaile eta bereziki, eskerrak zuoi, gu guztion ilusioa eta ahalegina iraunaraztea posible egin dituzuen 14.099 harpidedunoi.

**Encar Echazarra**  
IVAPeko zuzendaria

## O ZENBAKIAREN ARGITAN

“Administrazioan, herri-lanean ari garen euskaldunok zail eta neketsu ikusten dugu Administrazioaren euskalduntzea, baina,aldi berean, behar-beharrezkoa deritzogu alor honetan ere euskarazko herrigintza bultzatzeari, gogotan eta asmotan dugun Euskal Herri euskaldunak behar duen euskal administrazioa eraikitzeko.

Makina bat oztopo bada. Mendetako erdal herrigintza, herri-langileen erdalduntasuna, agintari zenbaiten arduragabezia, eta abar, gaidinkizun ditugu. Indarrak, bestalde, urriak. Kemenak, ordea, ugari”.

Sinatzailea *Administrazioa Euskaraz* dugu.



Lehen zenbaki honek dakartzan atalen artean dira, esaterako, Lege-esparrua, Idaztarauak, Idazki-ereduak, Iritziak, Itzulpen-arazoak, eta, azkenik, Berriak. Horietan, “Euskarari buruzko oinarritzko araubidea (eta II)” landu du J.I.B.-k sinatua datorren artikulua. “Euskaraz hitz berriak maileguan hartzeko premia legokeenean nola har litezkeen bukaerari dagokiola: II. Hitz bukaerak” artikulua ez du sinadurarik. E.O. sinaturik dator egiaztagiri ereduak erakusten dituen testua. “Garbizaletasuna ala Garbizalekeria?” da Mikel Garmendia Ugarte (Eusko Legebiltzarra) itzultzailearen lanaren aztergaia. Jon Agirrek (Bilboko Udala) gogoeta egin du “Udal berba dela eta” testuan. Andoni Unzalu (Zornotzako Udala) “Eskabide-orriari hobekuntza batzuk” proposatzera dator. “Gaztelerezko gerundioa eta euskara” da Joseba Erkiziak (Gipuzkoako Foru Aldundia) lantzen duen gaia, eta aldizkaria argitaratu aurreko hilabete bietan egindako “Administrazioiko itzultzaileentzako hobekuntza-ikastaroa”ren berria ematen du Pedro Iturriozek. Garai hartako egoeraz hobeto jabe gaitezenez, “H.A.E.E.aren liburutegira harpidetzaz iristen diren zenbait aldizkari”ren zerrenda dugu azken orrialdean, eta, hondarreko, lauki

batean ageri, “Erabilitako zenbait hitz”, hots, euskara-gaztelania hiztegi lagungarria non, adibidez, honakoak irakurri ditugun: “erantzukizun: *responsabilidad*”, “idazki: *escrito*”, “izenpetzaile: *fir-mante*”, edo “zuzentza: *Justicia*”.

Aldizkariak badu salneurria ere: 100 pezeta.

Bigarren zenbakiaz gero, tinta beltza baztertu eta urdina hartuko du aldizkariak, eta logoa izango du lagun. Hilabete birik behin ikusiko du argia eta, aurretentzean, hainbat gairi buruz gogoeta egiteko baliatuko da agurraren tartea. Tarte horretara bilduko diren egileak ere bat baino gehiago izango dira, bigarren zenbakitik bosgarrenera: Elisabete Bizkarralegorra (Herri-Ardularitzaren Euskal Erakundeko Artezkaria), Josu Legarreta (Euskara Suztapenerako Artezkaria), Andres Urrutia (notarioa), Manu Legarreta (Bizkaiko Foru Aldundia). Edukiei dagokienez, lehen zenbakian agindutako biderei lotuko zaio aldizkaria: lege-esparrua, idazki-ereduak, euskarari buruzko araubidea eta beste. Idazle-etan, Kaxildo Alkorta, Mikel Garmendia Ugarte, Anton Santamarina, Tere Barrenetxea, Patxi Goenaga, Joxe Mari Berasategi... Eta orduan, bosgarren zenbakia argitaratu –1986/1987ko alea da– eta

kito, aldizkaria isildu. Bi urteko mutualdia izango du *Administrazioa Euskaraz*-z.

## 1989KO UDA

“Duela bi urte argitara genuen *Administrazioa Euskaraz* aldizkariaren azken alea. (...) Bi urte honetan euskal Herri-Administrazioaren euskalduntzeak bide berriak ebaki ditu horietan barrena abiatzeko: helburu mailakatuak, hizkuntza-eskakizunak, xede berezietarako hizkuntza-prestakuntza, euskarazko trebakuntza eta abar, 1986ko azaroaren 25eko 250. dekretuaren ondorioz. Bide horretatik lan handia dago egiteko (...) Herri-Ardularitzaren Euskal Erakundeak, baliabide urriak izanik, aldizkari hau argitaratzeari ekin zion eta jarraipidean ito, bitarteko-eskasiagatik hain zuzen. Baina hasierako helburu haiek bere hartan jarraitzen dute eta ostera lehengo lan honi lotu beharra heldu zaio Erakunde-ari. Luzerako izango ahal da”.

Edukietan aldaketarik ez da: idazki-ereduak nola egin, euskararen araubidea, itzulpen-arazoak, berriak, iritziak eta gisakoak bilduko ditu aldizkariak. Eta, berritasuna, bi hilabetekaria izatetik

urtean lau ale argitaratzera joko du. Ohar egiteko modukoa da amaierako aldarrria, hots, erran delako "luzerako izango ahal da" hori, aldizkariak bigarren isilaldia izango baitu, lau urte iraun zuen mutualdia! 1989ko udazkeneko aleak ez zuen segidarik izan 1993ko uda arte...

### "1993KO UZTAILA. I. ZENBAKIA"

Gaur egun kaleratzen den *Administrazioa Euskaraz* aldizkariaren sorrera dugu 1993ko ale berria. "1. zenbakia" dela dio, ez dakar atarikorik, hiru artikuluren sarrera baino. Bernardo Atxagarekin elkarrizketa, batetik; administrazioko euskalduntze prozesuari buruzko erreportajea, bestetik; orrialdearen barnean, aldizkariaren nondik norakoa zehazteko helburua duen testua: "Gure hordagoa", Erakunde Harreman eta Toki Administrazioarako Zuzendari Peru Bazakok sinatua dator. Eta dio: "Hona *Administrazioa Euskaraz* berria. Batetik, lehen-goaren jarraipena da, zergati eta zertarako berek eragina. Baina asmo-sorta mardulagoa du oraingoan, eta beste itxura eta egitura". *Berria* izanagatik ere, *lehen-goaren jarraipena*. Baina bada aldatketarik, bada alderik. "Lehen-go ez bezalako izango da aurrerantzean *Administrazioa Euskaraz*, beste antza, bestelako egitura eta beste tamainakoa. Lehen legez jasoko ditu Administrazio-ko hizkuntzari buruzko idazlanak (inprimakiak, idaztarauak, itzulpen-ara-zaok, terminologia, e.a.). Baina baita Administrazio-ko beste arloekin zerikusirik duten gaiak, eztabaidak, eritzi-artikuluak, elkarrizketak, erreportaiak, berriak, gutunak eta gehiago ere".

Jarrita dago oinarria, baina ez da zerutik etorria. Lehenengo garaian bezala, hamaika dira idazle eta artikulatu sinatzaileak, hau da, handik goiti eta, alean-alean egundaino, "Zenbaki honetako

lankideak" izango direnak. Ordea, buru bat dute lana zuzentzen: Joseba Lozano da koordinatzaile, eta zuzendaritza-batzordea du laguntzaile, eragile, haustu-emaile. Batzorde horretan, izanaren jabe diren hainbat izen, nolana hiko jendea ez: M. Jose Arrieta, Xabier Aizpurua, Peru Bazako, Kepa Bordegarai, Josu Erkoreka, Cesar G. de Heredia, Juan Isasi, Antton Kaiffer, Joseba Lozano eta Santiago Martinez".

Aldizkarian badakite aurreko aldiko ezintasunen berri: ekin bai, jarrai ezin, bertan behera bi aldiz egin du aldizkariak sorrerako aldian, lehenengo hartan. Jakinaren gainean ari dira, badakite handia dutela lantegia. "Aldizkariaren zenbaki bakoitza katemaila bat da. Zortzi-hamar katemaila ez dira nahikoa katea osatzeko, katerik txikiena ere maila askokoa da beti eta, luzea. Horixe izan nahi du aldizkari honek, horixe izan behar du eta horixe izango da, aldizka, ezarritako egunetan eta etengabeko jarraipenaz atarako den aldizkaria. Horretan dugu, hor dago gure 'hordagoa'. Orain 'euki' egin behar".


### HORDAGO!... EDUKI!

Beren buruari jo zioten hordagoa. Gero, *eduki!* egin zuten, hala haiek nola ondoren haien lekukoa hartu zuten guztiek, suzi hari bizirik eusten diotenek. 8. zenbakian agertu zen agerian azkenekoz zuzendaritza-batzordea osatzen zuten laguneren zerrenda. Harrezkero, 9. zenbakitik hona, "zenbaki honetako lankideak" izenpean bildu dira guztiak. Beste aldaketa bat, aldizkariaren arduradunari dagokiona: 54. zenbakian ez dugu ordu arteko koordinatzaile Joseba Lozaren izenik irakurriko eta, 55.ean, egungo koordinatzailea estreinatuko da karguan, hau da, Xabier Atria. Berau arduratzen da, zuzendaritza-batzordearekin batera, eta aldian aldiko zenbakiko lankideak tarteko, lana burura eramaten.



## 1993ko uztailean argitaratu zen oraingo aldizkariaren 1. zenbakia





## SOLASALDIAK

Ahalegin handi eta nabarmenak egin ditu aldizkariak 1986an, 1989an, 1993an sortu zenetik hona. Agerikoenez, hirugarrenez lotu zitzaionetik egin du biderik oparoena. Ezarian-ezarian sendotu da aldizkaria, eta, sendotasun horrek hain zuzen, egitasmo berriei ekiteko adorea eman dio agerkaria gidatzen duen zuzendaritza-batzordeari. Horrela sortu zen, adibidez, *Solasaldia*k izeneko gehigarri berezia, urtean behin argitaratzekoa, non maila handieneko izenak

elkarrizketatu diren. Ekimenak 2004an ikusi zuen argia, eta, ordukoan, Bernardo Atxaga izan zen elkarrizketatua. Harrezkero, Pedro Migel Etxenike, Noam Chomsky, Migel Herrero de Miñon, Pedro Luis Uriarte, Nestor Basterretxea, Luis Rojas Marcos eta Anjel Lertxundi agertu dira gehigarrian.

Atal hau ez ezik, 7 kontakizun ere argitaratu zuen *Administrazioa Euskaraz* aldizkariak. Punta-puntako zazpi idazleren ipuin berri bana ekarri zuen separata hark.

Eta milaka artikulugile, marrazkilari, kazetari, iritzi-emaile, administrazioko langile, idazle eta irakurle, aldizkari honen “maila askoko katea, eta luzea” egitea helburu harturik.

Bigarren aldiko 1. zenbakian finkatu zituzten atalei zintzo atxikirik osatu da 75. zenbaki honetara ekarri gaituen bidea: Pertsonaia, Normalkuntza, Administrazio-idazkiak, Elkarrizketa, Euskalduntze, Erreportaia, Gramatika, Leihatila, Hitzez hitz, Lanean euskaraz, Eztabaida, Giza baliabideak...

75 zenbaki egin ondoren, 1993an aldizkari hau abiarazi zutenek zer ote diote? Eta, are, 1986ko urte hasiera hartan lehenengo *Administrazioa Euskaraz* hura eragin zutenek burua jasoko balute, hitz egingo balute, oraingo aldizkaria eskue-tan hartu... Hitz zuriak bazter, zer esango ote lukete? Besterik ezean, agerkari honen 50. alearekin batera hainbat eragilek egindako hitz ederren oihartzunak iraungo du. “Gure argitalpenaren izenburuak bi kontzeptu uzartu ditu: administrazioa eta euskara. Elkarrengandik



oso urruti zeuden bi errealitateak elkarrengana hurbiltzen ahalegindu gara hamabi urte hauetan, eta nik uste dut, neurri batean behintzat, geure ekarpen-txoa egin dugula”, garai hartan IVAPeko zuzendari Jon Koldobika Urrutiaren hitzetan. Euskaltzainburu Andres Urrutiaren aburuz, berriz, “lanabes baliotsua eta aintzat hartzekoa Euskaltzaindiarentzat ere, etengabe erakusten baitu aldizkariak euskara batuaren jardunean, funtzionario zein herritar izan, guztiz egingarria dela euskararen erabilera administrazioaren barruan”. Eusko Jaurlaritzako teknikari eta Tiraka taldeko kide Zelai Nikolasek, aldizkaria egiten zutenei eskerrak eman zizkien “azken urteotan euskararen inguruko anabasa zuzentzen laguntzeagatik, eta gure lana errazteagatik”. Gogoeta berean, Zelai Nikolasek “kolore eta ilustrazio gehiago” ere eskatu zituen aldizkarian, eta formatu digitalari Eusko Jaurlaritzaren *Jakina* intranet zerbitzuan toki nabarmenagoa eskaintzea. Bide horretan ere aurrera egin da... Hein batean, bederen. ■



# EBALUAZIOA ETA AZTERKETAK: KALITATEA ETA ARDURA

NEUS FIGUERAS

**G**uztiok dugu eskola-sasoiko edo unibertsitate-garaiko ebaluazioen (alegia, azterketen) oroitzapen txarren bat. Gogoan dugu irakasle batek ariketa baten puntuazioa oker jarri zigula edo, ez merezi arren, suspenditu egin zigula eta inork ez zuela gure kexa aintzat hartu, ez zigula jaramonik egin, edo kopiatzen harrapatu gintuztela... eta azterketa bat gainditzeko zer baztertu behar izan genuen ere pentsatzen dugu edo proba bat gainditzeko ikasten emandako orduak helduaroan ez direla oso erabilgarriak izan. Pentsatzen dut horregatik ematen digula alegia ebaluazioak, eta, bereziki azterketek, irakasleei nahiz ikasleei, eta horregatik dutela hain ospe txarra; hala ere, oraindik erabiltzen dira, geroz eta gehiago, gainera.

Ebaluazioa, 1980ko hamarkadaren amaierara arte, probaren sinonimo zen, eta ebaluaziotzat honako hauek soilik hartzen ziren: azterketak edo azken probak –irakasleak egiten zituen eta ikastetxerako ziren–, edo errebalidako edo unibertsitatean sartzeko ikastetxetik kanpoko azterketak. Azterketa horiek egitura zurruna eta gutxitan aztertu edo balidatutako kalitate- eta adierazgarritasun-bermea zuten. Irakasleak burututako gainerako ebaluazio-jarduerak –adibidez, irakasleek aprobetxamenduaren jarraipena egitea, nota partzialak jartzea edo ikasturtean zehar egindako lana baloratzeak– ez zuten azken emaitzetan berariazko pisurik izaten eta irakasle bakoitzak erabakitzen zuen zenbateraino hartuko ziren kontuan. Oro har, teoria behaviouristen arabera bereganatzen ziren ezagutzen transmisio gisa ikusten zen irakaskuntza, eta irakaslearen funtzioa bere irakasgaiari aditua izatea eta erabakiak hartzea zen.

Azken urteetan, gauzak aldatzen hasi dira, eta aldaketa horiek zerikusirik handia dute Ekonomia Lankidetzaren eta Garapenerako Antolakundearen ezagutzaren gizartearen oinarriko gaitasunak definitzeko egin duen lanarekin, PISA frogaren emaitzek geroz eta eragin handiagoa izatearekin eta Europa kontinente lehiakor bihurtzeko beharrezkin. Alde batetik,

zer eta nola irakatsi behar den eta zer ikasi behar den identifikatu eta deskribatzeko modua aldatu egin da, eta jada ez zaio ezagutza memoristiko edo deklarati-boari ematen lehentasuna, garrantzi gehiago du ikuspegi esperimentalak, egiten jakiteak, ikasten jakiteak, praktikan jartzen jakiteak. Bestetik, ebaluazio-ari-ketak eta azterketak aldatzen hasi dira, irakasleen jardunari eta ikasleen (edo irakaskuntza jaso edo proba egiten duenaren) beharrei egokitzeko, egiazko bizitzan egin beharko dutena kontuan hartuta.

Lehen hizkuntzen eta atzerriko hizkuntzen irakaskuntzaren testuinguruan, eraldaketa horrek ebaluazio-jarduerak eta azterketek ikasleen komunikazio-beharrekin gehiago bat etorri behar izatea eragiteaz gain, kalitate-kontrolerako prozesuak sartzeari ere ekarri du, proba edo azterketak prestatu, kudeatu eta zuzentzeko fase guztietan. Horrez gain, geroz eta arreta gehiago eskaintzen zaio *accountability* kontzeptuari; hitz gutxitan esanda, ebaluazioaren arloan emaitzak erabili edo aplikatzeko arduraz jardutea, emaitzak aplikatzeko eta erabiltzeko modua etikoa den zalantza-aren inguruko galderak azterketen arduradunei planteatuta: bidezkoa al da frogatutako kalitaterik ez duen proba edo azterketa bat erabiltzea lanaren edo



immigrazioaren esparruko erabakiak hartzeko? Europako Kontseiluak 2001ean *Europako Erreferentzia Esparru Bateratua* argitaratzeak, *Hizkuntzen Portfolio Europarra* (2001) eta *Azterketak esparruko mailekin lotzeko eskuliburua* (2009) bezalako agiriekin batera, asko lagundu du ikuspegi-aldaketa hori sendotzen, eta, esan daiteke, orain ezin dela atzera egin. Datozen urteetan jasoko da ebaluazio-praktika hobetzeko asmoz eta hezkuntza-paradigma berrien babesean sortu edo hedatu diren erakunde eta elkarten lanaren emaitza; elkarte horietariko batzuk ALTE ([www.alte.org](http://www.alte.org)) edo EALTA ([www.ealta.eu.org](http://www.ealta.eu.org)) dira eta horien xedea da frogak eta hizkuntzen ebaluazioa zuzentzen duten printzipio teorikoak ulertaraztea eta ezagutaraztea, bai eta Europa guztian ebaluazio-praktikak hobetu eta partekatzea ere, ikasle/azterketarienganako errespetua, erantzukizuna, ekitatea, fidagarritasuna, baliozkotasuna eta ebaluazio-jardueran parte hartzen duten alderdi guztien arteko lankidetzaz bezalako printzipio orokorrak kontuan izanda. Irakurleari gomendioa luzatzen diot EALTAREN praktika onei buruzko jarraibideak kontsultatzeko –35 hizkuntzatan daude, euskaraz ere bai (<http://www.ealta.eu.org/documents/archive/guidelines/Basque.pdf>)–, orain dela oso gutxira arte arreta nahikorik jasotzen ez zuten gaiak ezagutzeko:

*Nola bermatu ebaluazioaren emaitzak zehatzak eta bidezkoak direla?*

*Nola sustatu ebaluazio-irizpideak irakasleen artean eta ikastetxeen artean adostea?*

*Zer ondorio du probak irakatsitakoaren gainean? Zer azterlan egin da eragin hori zehazteko?*

Azken ohar gisa, Bachman eta Palmer-en ebaluazio etikoaren filosofiako sei puntuak aipatu nahi ditut, probak edo azterketak prestatu, kudeatu eta zuzentzen ditugunoi arduratsugoak eta autokritikoagoak izaten eta gure praktika pixkanaka-pixkanaka hobetzen lagundu ahal baitigute:

1. Ebaluazioa irakaskuntzarekin eta hizkuntzaren erabilerarekin lotzea.
2. Izangaiek beren onena eman ahal izateko moduan diseinatzea probak.
3. Probak diseinatzerakoan, ekitateari eta justiziarri buruzko gogoetak sartzea.
4. Ebaluazio-prozesuan ikasleak aintzat hartzea: izangaiek parte-hartze zuzenagoa izateko moduak aurkitzea, norbanako arduratsu gisa hartzea, prozesu guztiari buruzko ahalik eta informazio gehien ematea.
5. Probaren eta horren emaitzen erabileraren gaineko ardura guztiei eskatzea eta norberak ere hartzea.
6. Frogen emaitzetan oinarrituta hartutako erabakiak erantzun irmo edo unibertsalik ez duten zalantzez beteta daudela aitortzea. ■

# “GIPUZKOAKO ZERGA GIDA” ETA JAKINTZA PARTEKATZEKO GONBITEA

MIKEL AZKARATE PEREZ  
GIPUZKOAKO OGASUNEN LANGILE  
EUSKALDUNON TALDEKO PARTAIDEA

**G**ipuzkoako Zerga Gida Gipuzkoako zerga sistemaren laburpena da, eta bi helbururekin argitaratu du Foru Aldundiak aurtengo urrian: Gipuzkoako zergak ogasun arloko erabiltzaileei hurbiltzea, batetik, eta beraiei euskaraz lan egiteko tresna bat eskaintzea, bestetik.

## Euskarazko erabiltzaileak gero eta gehiago dira

Gipuzkoan, gero eta gehiago dira zerga arloan euskara lan eta harreman hizkuntza duten erabiltzaileak. Hori horrela, aspaldidanik, Gipuzkoako Foru Ogasunak zerga arloko edukiak eskaintzen ditu bi hizkuntzetan, formatu digitalean edo paperean (zerga araudia, *Errenta Zergaren gidaliburua*, zerga inprimakiak...). Halere, arlo horretan oraindik hutsunak nabarmenak dira euskarazko materialak dagokienez.

Hasieratik, Gipuzkoako Ogasuneko Langile Euskaldunon Taldearen kezka hutsune horiei aurre egiten laguntzea izan da, eta terminoen glosarioak, izendegiak, zuzenbide arauen bildumak, hizkuntza baliabideak... prestatzen ahalegindu gara. Hortaz, beharrezko ikusi

genuen zerga sistemaren gida laburtzaile bat euskaraz argitaratzea, eta gidaren proposamena luzatu genion departamentuari.

## Zerga gidaren hartzaileak

Erabilera ugari izan dezake gidak, hala nola profesional publiko nahiz pribatuen kontsulta, lanbide heziketako institutuetako edota unibertsitateko ikasmateriala edota Ogasunerako oposizioen ikasmateriala.

Hori horrela, erabiltzaile askori zuzenduta dago: ogasuneko herri langileei (Aldundia, udalak...), zerga arloko enpresetako langileei (aholkularitzak, gestoriak, finantza entitateak...), institutuetako eta unibertsitateko irakasle eta ikasleei edota oposizioak prestatu behar dituztenei.

## Argitalpenaren edukia

Zerga gidan Gipuzkoako Zergen Foru Arau Orokorren azterketa sakona egiten da, Gipuzkoako zerga sistemaren oinarri nagusietako bat baita. Hortik aurrera, Gipuzkoako zerga sistemaren hurbilpen bat egiten da, baita zerga bakoitzaren azalpen xehatu bat ere.

## Proiektuaren bide luzea

Zerga gidak bide luzea egin du: urte eta erdi igaro da proiektuaren ideia sortu zenetik gauzatu arte. Iruditzen zaigu horrelako proiektuen komunikazioa interesgarria izan dela administrazio, enpresa eta elkarten munduan proiektu gehiago sortu daitezzen. Horregatik, hasieratik bukaerara egin ditugun urratsak laburtzen dizkizuegu:

1. Ideia sortu eta landu.
2. Proiektua idatzi eta zirriborroa aztertu.
3. Proiektua departamentuko eta Aldundiko arduradunei aurkeztu (Euskara Zuzendaritza, Inprimategia, Argitalpen Zerbitzua).

4. Idazketa taldea sortu (21 lagun, koordinatzailea barne).
5. Behin betiko idazketa irizpideak zehaztu, departamentuari aurkeztu eta erabaki.
6. Zerga gida idazten hasi.
7. Zirriborroak teknikariez osatutako kontraste talde bati aurkeztu.
8. Zalantzak eta gorabeherak aztertu eta ebatzi.
9. Argitalpenari buruz lotu beharrekoak bideratu: ale kopurua, ISBN, lege gordailua, argitalpen fitxa, diseinuko xehetasunak...
10. Inprentako frogia eginarazi, berrikusi eta zuzendu.
11. Aurkezpen publikoa prestatu (hizlariak, mezuak, komunikazioa, tokia).
12. Argitalpenaren komunikazioa kudeatu, Aldundiaren barruan eta kanpoan.
13. Liburua banatu paperezko formatuan, eta Interneten jarri formatu digitalean.
14. Argitalpen prozesua ebaluatu eta hobekuntza puntuak identifikatu.
15. Argitalpena Interneten eguneratzeko bideak aztertu eta erabaki.

Proiektua aurrera eramateko, funtsezkoak izan dira departamentuko arduradunek serio babestea, langileek bultzatzea eta idazketa lana beren lan jardunaren barruan txertatzea.

Bukatu aurretik, administrazioetako langileei gonbitea luzatzen dizuegu lan materialak sortu eta zabaltzeko modu eraginkorra izan ere, gure esperientziak erakutsi digunez, horrelako ekimenak urte luzetan metatutako euskarazko jakintza bildu eta zabaltzeko modu eraginkorra dira, eta langileen motibazioan eragiten dute.

(*Gipuzkoako zerga gida 2011*: [http://doiop.com/gipuzkoako\\_zerga\\_gida](http://doiop.com/gipuzkoako_zerga_gida)) ■

# Pedro Navarro, gudagizon euskalduna errenazimenduko Italian

ENEKO OREGI

ITZULTZAILE ZERBITZU OFIZIALEKO BURUA

**H**ainbat gizon-emakume bipil, ausart eta kementsuk izan du sortzea Euskal Herrian mendeetan zehar. Batzuk aski ezagunak eta entzutetsuak dira, hala nola Elkano, Erauso, Urdaneta, Lope Agirre, Zumalakarregi, eta beste. Beste batzuen entzueran, ordea, nekez igaro da gugana denboraren eta ahanzturaren laino artetik.

Horietako dugu Pedro Navarro erronkariarra: itsasoz eta lehorrez gudagizona, itsaslapurra, harresiak erauzten trebea eta jaun eta errege desberdinen zerbitzaria, Italia eta Mediterraneo osoan ibili zitzaizgun XV. eta XVI. mendeen bueltan.

Jaiotzez Erronkariko Gardekoa omen zen, 1460an jaioa. Pedro Bereterra omen zuen jatorriz, baina Pedro Navarro izena erabili zuen eta izen horretxeekin famatu zen. Gaztetan artzain ibili omen zen eta, akaso, meatzari ere bai. Hala diosku aieruz haren biografiagileren batek, bolbora edo sutautsarekin erakutsi zuen trebezia oinarri hartuta. Euskalduna bide zen, haren hilarrian “kantauriar” esaten baitzaio, garai hartan latinez esan ohi zen bezala.

Hogei urterekin, herriko zeruez beste ikusi nahirik, Zangozan aurkitutako merkatarari genoar batzuei lotu zitzairen eta Italiarako bide hartu zuen. Han, Aragoiko Joan kardinalaren zerbitzura sartu zen. Izan ere, kardinal hori zen Hueskako Montearagon monasterioaren irabazien hartzaile eta, horretaz, baliteke bidaia bertakoren batek emandako kardinalarentzako gomendio-gutunez hornituta egin izana.


Handik urte gutxira, 1487an, Medicitarren mendeko Florentzia hiriko gudarostean ageri zaigu oinezko gisa, Genoako hiriarren aurkako gerran. Gatazka horre-

tan eman zuen burua ezagutzera Pedro Navarrok kanoilari eta leherkari-egile gisa: Sarzanello-ko gaztelua eraisteko harresi-barrenak zulatu eta bolboraz leherrarazi zituen, hiria erori zen arte.

Napoliko Erreinura pasatu zen ondoren, eta Crotona hiriko markesaren zerbitzura sartu zen: harekin batera, bi ontzirekin, Italiako, Greziako eta Ipar Afrikako portuei eta itsasontziei erasotzen zieten, zama lapurtu, gizonak esklabu hartu eta saltzeko, ontziak turkiarrak izan ala veneziarrak, frantsesak edo Aragoiko koroakoak. Itsaslapur eta predatzaile, Mediterraneo erdialde osoan zabaldu zen haien entzueran.

Halako batean, turkiarrek Antonio Centelles, Crotonako markesa, preso atxilotu eta Istanbulen lepo egin zutenean, alar-gunak Pedoren eskuetan utzi zituen haren operazio guztiak. Hala jarraitu zuen, pirata berberiskoak borrokatzen, haien portuak erasotzen eta itsasoan barrena merkataritzako ontziak atzitzen, lapurtzen eta hondoratzen, hariak eta arkabuzkada baten ondorioz, larri zaurituta, lehorra itzuli eta itsas-gudua utzi zuen arte 1499an.

Gerrarako grina ezin ase eta Napoliko Erreinuko buruzagi gaztelua zen Gonzalo Fernandez Cordobakoari eskaini zion bere burua. Aragoitarrekin eta



veneziarrekin abiatu zen Pedro, 1500. urtean, turkiarren esku zegoen Zefalonia uharteko gazteluaren aurka. Betiko tre-beziaz bolbora erabiliz, gazteluaren harresiak lurrera botatzea lortu zuen, baita hiriaz eta uharteaz jabetzea ere.

Frantses erregeak Italia menderatu nahirik Napoliko Erreinua eraso zuenean, Gonzalo Cordobakoari eskaini zion bere burua eta haren esanetara aritu zen, lehenik oinezkoak eta kanoiak prestatzen eta gerra horretako gudualdi garrantzitsuenetan borrokan: Canosan, Cerignolan eta Napoli hirian. Hiri honetan, frantsesek bi gaztelu bortitzetan eusten zioten gazteluaren erasoari: Castello Nouvo eta Castel dell'Ovo. Lehenengo bata eta gero bestea menderatu zituzten Gonzalo Cordobakoaren soldaduek, Pedro Navarroren bolborazko minen leherketen ondorioz. Haren trebetasunak eta minok sortutako txikizio izugarriak Europa osoan izsan zuten oihartzun, eta Pedro Navarroren izena azkar barreiatu zen bazter guztietan.

Frantsesak Napoliko Erreinetik egotzi eta Lyongo bakearen ondoren (1504), Alvitoko konde izendatu zuen Pedro Aragoiko Fernando erregeak, *Katolikoak*, alegia. Horrela, Alvito edo, gaztelaniaz, Olivetoko kontearen izenez ezagutzen dute gaur egun ere zenbait euskaldunek, izen horrekintxe baitu kale bat Iruñean.

Erregearen aginduz Gaztelara itzuli ondoren, Naiarako dukea buru zuen matxinada bat menperatzera, Fernando *Katolikoak* itsas-armadako buruzagi izendatu zuen eta Afrika iparraldeko hiriak berreskuratzeko agindu. Oran eta Bujia (gaur eguneko Aljerian) eta Tripoli (gaur eguneko Libian) hiriak eskuratu zituen ontziteria indartsu batekin, baina porrot egin zuen Djerba uhartearen aurka (Tunisian).

Italiara itzulita, frantsesen aurkako gerran aritu zen, artilleriaren eta oinezkoen buruzagi, Bolognan Po ibaiaren lurretan. Ravennako guduan frantsesek atxilotu eta preso hartu zuten, 1512. urtean.

Frantziako François I.ak 20.000 ezkutuko bahia eskatu zuen Pedro askatzeagatik eta Fernando erregeak ez zuen bost urtean ordaindu nahi izan. Ohargarria da, bestalde, tarte horretan Pedro Navarro Fernando erregearen meneko bihurtu zela, honek Nafarroako Erreinua eskuratu baitzuen eta Nafarroako Gorteeke erregetzat onartu. Beraz, ordura arte soldatapeko gudagizon izandakoa Fernando erregearen meneko natural izatera pasa zen, bere erregeri leialtasuna zor ziona.

Hirugarren urtean, bolbora-usaiaren minenez-edo, Frantziako erregeari eskaini zion bere burua. Haren aginduz 10.000

euskaldun eta bearnotarrez osatutako gudarostea bildu zuen Pedrok eta Italiara abiatu zuen frantses armadarekin. Han, Marignanoko guduan, Milango gaztelua hartzen eta Bresciakoari erasotzen ausart, trebe eta bipil erakutsi zuen burua, bere euskaldunekin batera.

Itsasoz frantsesen esanetara ibili ondoren, Italiako beste gerrate batean jardun zuen Pedrok 1521etik 1526ra. Ginoa hirian hartu zuen preso Juan Urbina arabarrak, eta Napoliko Castel dell'Ovon izan zen preso lau urtez. Bakea egin zenean, preso zeuden gudagizonak aske uztea erabaki zen, baldin eta nor bere *berezko erregearen* zerbitzura itzultzen bazen. Gaztela eta Aragoiko Karlos erregeak ez zuen Pedro Navarro erreklamatu, nafarra izateagatik akaso.

Frantziako erregearen zerbitzura itzuli zen Napolira eta, espainiarren esku zegoen hiria setiatzen ari zela, preso erori zen ostera 1528ko udan. Berriz ere Castel dell'Ovon atxilotu zuten eta handik egun gutxira, Erregeren aginduz, oheko bururdiarekin itota hil zuten.

Hala hil zen, berak menderatutako gazteluaren leotzean, gudua eta borroka maite zituen euskaldun hura, errege eta aberrik gabe bizi izan zena eta bolboraren usainak eta leherketaren izuak liluratzten zutena. ■

# Hizkuntza-alternantzia

*Las cuatro de la tarde, eguraldi ederra  
a las cinco en el baile, goazen plaza aldera...*  
(kanta herrikoia)

INMA MUÑOA

HIZKUNTZA-TEKNIKARIA

Solasaldi berean hainbat hizkuntza txandakatzea edo nahastea ez da fenomeno berria, ez euskaldunontzat, ez beste hizkuntzetako hiztunentzat ere. Are gehiago, soziolinguistikan egindako ikerketek diotenez, zaila da hizkuntza-alternantzia komunikazio-estrategia edo baliabide gisa erabiltzen ez duen hiztun elebidun edo eleaniztunik topatzea (Myers-Scotton, 2002).

1970. hamarkadaren hasiera arte, hizkuntza-alternantzia baztertua eta estigmatizatua izan da eta “semihiztunek ekoiztutako gramatikarik gabeko hizkuntzen nahasketa edo mordoilotzat” hartu izan da (Grosjean, 1982: 157). Ikuspegi horren nagusitasuna erabatekoa izan da hizkuntzalarien artean, eta neurri batean Weinreich-ek elebidun idealak emandako definizioaren eraginez sortu zela esan daiteke. Weinreich-ek *Languages in Contact* izeneko lanean aipatzen duenaren arabera, elebidun ideala “hiz-

keta-egoeran (hots, solaskide, gai, eta abarretan) beharrezkoak diren aldaketak gertatuz gero, hizkuntza batetik bestera mugituko litzateke, baina inoiz ez aldatetik jasan ez duen hizketa-egoera baten barruan, eta are gutxiago perpaus bakar baten barruan” (Weinreich, 1953: 73). Bestela esanda, elebidun idealak hizkuntzak ondo berezita izango litzuzke eta, ondorioz, “komunikazio-egoera 1 = hizkuntza 1” printzipioari jarraituz, egoera bakoitzari dagokion hizkuntza erabiltzeko gaitasuna izango luke. Elebidun idealaren definizio horren ondorioz, hizkuntzak nahasteko edo txandakatzeko zaletasuna eredugarria ez den elebitasunaren islatzat hartu izan da, hizkuntza ondo menderatzen ez duen hiztunaren ezaugarri gisa, alegia.

Elebitasuna eta eleaniztasuna diziplina ezberdinetatik ikertu diren neurrian, hizkuntza-alternantziari buruzko ikerlanak ere ugartuz joan dira. Ikerketa horiei esker, egun jakin badakigu hizkuntza-alternantzia ez dela hizkuntzen erabilera zabar edo akasduna, baizik eta hiztun elebidunek ohikoa duten hizketa-modu bat. Hizketa-modu horrek, gainera, arau jakin eta zehatzak jarraitzen dituenaren zantzuak daude. Batetik, badirudi hizkuntza-alternantziak arau morfosintaktiko propioak dituela; hots, hizkuntzak nahasten dituzten hiztunek ez omen dute edozein egitura morfosin-

taktiko nahasten eta, ondorioz, ez dute edozein hizkuntz “nahasketa” onartzen (Myers-Scotton, 1997).

Bestetik, hizkuntza alternantzia komunikaziorako estrategia bat dela nahiko garbi dago gaur egun. Komunikazio-egoera jakin batean, hiztun elebakarrek erregistro edo dialekto ezberdinen artean mugitzea edo batetik bestera aldatzea aukeratu dezaketenez bezala, hiztun elebidunek edo eleanitzek hizkuntzak txandakatzea edo nahastea erabaki dezakete.

Hizkuntza alternantziaren aldeko hautu horren esanahiak, funtzioak edo zergatiak askotarikoak izan daitezke. Hasteko, hizkuntza-alternantziaren atzean hiztunaren konpetentzia falta egon daiteke. Esaterako, euskara ondo menderatzen ez duen hiztun batek euskaraz aritu behar duenean, gaztelania erabiliko du bidean topatzen dituen hutsuneak (lexiko mailakoak edo bestelakoak) betetzeko. Hiztun horrentzat, hizkuntza-alternantzia euskaraz aritu ahal izateko estrategia izango litzateke; estrategia hori erabili ezean, ziur aski, hiztun horrek ezingo luke solasaldia euskaraz bideratu eta gaztelania erabiltzearen hautua egin beharko luke.

Beste kasu batzuetan, hizkuntza-alternantziaren atzean hiztunak bere buruaz islatu nahi duen irudia egon daiteke. Esate baterako, “uda honetan mendi zeharkaldi bat egin dugu” edo “uda

honetan trekking bat egin dugu” entzuterakoan (edo irakurtzerakoan) hiztunari buruz datozkigun irudiak nahiko ezberdinak direla esango nuke. Hitztun horrentzat, hizkuntza alternantzia ez litzateke konpetentzia faltari aurre egiteko estrategia bat izango, baizik eta “trekking” hitzak dituen konnotazioak erabiliz, irudi jakin bat adierazteko modu bat. Hizkuntza-alternantziaren erabilera horretan, txandakatzen edo nahasten ditugun hizkuntzekiko hiztunak edo gizarteak duen irudia ere garrantzi handikoa da. Myers-Scotton ikerlariaren *Contact Linguistics* liburuan, Nairobiko gazte batzuen swahili-ingelesa hizkuntzen arteko alternantzia aipatzen da adibide gisa. Kenyako gizaratean swahilia bizimodu hiritarrarekin lotzen dela eta ingelesa goimailako ikasketen nahiz lanpostuen adierazle dela kontuan hartuz, ikerlari horren iritziz bi hizkuntza horien arteko alternantziaren bidez gazteek nolabaiteko identitate bikoitza adieraziko lukete; alegia, “hiritarra naiz eta ikasketak ditut” esateko modu baten aurrean geundeke. Beste hainbat egoeratan, hizkuntza-alternantzia diskurtsoa antolatzekeko estrategia edo baliabide gisa ere erabil daiteke. Alternantziaren erabilera horren barruan sartuko genituzke, esate baterako, honako adibide hauek (Muñoa, 2002):

- (1) “Jun ginan zerbait hartzea ta denbora guztian harekin, o sea, si un hermano no te llega a la altura, pues el otro igual sí!”
- (2) Tabernariak ze obligazio dauka? servicio de bebidas al por menor. Horregatik ordaintzen da. Besteak, talle-rrak, zer dauka? pues arreglo de automóviles o venta de automóviles...

Lehenengo adibidean ikus dezakegunez, hiztunak euskara erabiltzen du gertaeren narrazioa egiteko baina bere lagunaren jokabidearen balorazioa edo interpreta-

zioa egiteko, berriz, gaztelania. Hizkuntza-alternantziaren bidez, hiztunak kontaktaren alderdi objektiboa eta subjektiboa bereizten dituela esan genezake.

Bigarren adibidean, aldiz, hiztunak galdera erretorikoa euskaraz egiten du eta galdera horren erantzuna, berriz, gaztelaniaz. Hemen ere, hiztunak bere diskurtsoaren bi alderdi edo plano ezberdintzeko erabiltzen du hizkuntza-alternantzia.

Aipatutako erabilerez gain, hizkuntza-alternantzia zenbait hizkuntza-egoerari irtenbidea emateko ere erabil daiteke. Hizkuntza-gaitasun ezberdinak dituzten hiztunak biltzen diren taldeetan, hizkuntza alternantzia komunikazioa eta kide guztien partaidetza bermatzeko tresna izan daiteke. Gupta eta Yeok ikerlariak 1995ean argitaratutako artikulua batean Singapurreko familia baten adibidea jasotzen dute. Familia horretako kideen hizkuntza-gaitasuna anitza da: batzuk elebakarrak, beste batzuk elebidunak. Elebidunen artean ere, batzuk Txineraz erosoago aritzen diren arren, beste batzuek ingelesez aritzeko joera handiagoa dute. Hizkuntza-egoera horri irtenbidea emateko familiako hainbat kidek hizkuntza-alternantzia erabiltzen zutela ikusi zuten bi ikerlariak. Alternantzia horren helburu nagusia, solasaldian esandakoaren muina hizkuntza batetik bestera etengabe “itzultzea” zenez, hizkuntzak txandakatzea eta nahastea fami-

liako kideen arteko zubi-lana egiteko estrategia bat zela ondorioztatu zuten Gupta eta Yeok-ek.

Aipatu ditugun adibideek hizkuntza-alternantziak izan ditzakeen funtzio batzuk besterik ez dituzte islatzen baina hizkuntzaren erabilera konplexu baten aurrean gaudenaren zalantzarik ez dago. Azken batean, pertsona batek beste hizkuntza bat ikasten duenean, hizkuntza hori erabiltzeko gaitasuna ez ezik, ezagutzen dituen hizkuntza horiek txandakatzeke edo nahasteko aukera ere bereganatzen du. Hizkuntza-alternantzia, beraz, hiztun elebidunek eskura duten estrategia bat izango litzateke eta estrategia horren gauzatze-moduak komunikazio-egoeraren baitakoak izango dira. Hitztunak komunikazio-egoeraren ezaugarrien baitan erabakiko du, esate baterako, zein hizkuntza txandakatuko edo nahastuko dituen, alternantzia noraino eramango duen (h.d. perpaus osoak txandakatuko ditu edo perpaus barruko nahasketak erabiliko ditu?), eta zein helburu emango dion alternantzia horri. Erabaki horiek ez dira beti modu kontzientean egiten eta, ondorioz, hiztun elebidunek uste baino maizago erabiltzen dute hizkuntza-alternantzia euren jardunean. Hori dela-eta, ezinbestekoa da hizkuntza-alternantziaren ikerketan sakontzea, ikerketaren bideak emango baitigu hizkuntza-erabilera horrek gure artean dituen ezaugarrien berri. ■

## BIBLIOGRAFIA:

- Grosjean, Francois. 1982. *Life with two languages: an introduction to bilingualism*. Cambridge, MA: Harvard University Press.
- Gupta, Anthea and Yeok, Siew Pui. 1995. “Language shift in a Singapore Family”. *Journal of Multilingual and Multicultural development*, 16:301-14.
- Muñoa, Inma. 2002. “Zergatik eta zertarako erabiltzen ditugu Euskara eta Gaztelera solasaldi berean? Kode-aldaketaren funtzio pragmatikoak”. *Bat aldizkaria*, 42: 43-63.
- Myers-Scotton, Carol. 2002. *Contact Linguistics*. Oxford University Press.
- Myers-Scotton, Carol. 1997. *Duelling Languages: Grammatical structure in code-switching*. Oxford: Clarendon Press.

## UDAL GIDA: TOKI-ADMINISTRAZIOAN LAN EGITEKO TRESNA, GURE INGURUKO ADITU ASKOREN EKARPENEZ OSATUA

MARTA IGLESIAS

IVAPEKO AZTERLAN ETA ARGITALPEN ZERBITZUKO BURUA

**I**VAPEk, lau urtero *Udal Gida* liburua argitaratzen du. Liburu horretan, fitxa erraz eta argien bidez, udal kudeaketako atal nagusiak jorratzen dira (kontzeptuak, araudia, arazoak, perspektibak...).

Toki-administrazioei zerbitzu ematea da gidaren helburua; eta, horretarako, eguneroko lana aurrera eramateko tresna izan nahi du. Hori dela eta, bere egitura oso eskematikoa da eta gai guztiak taulen bidez eta eskemen bidez azaltzen dira, kontsulta errazak eta azkarrak egin ahal izateko. Ildo horretan, bi aurkibide ditu *Udal Gidak*: bata gaika antolatuta, liburuaren egitura islatzen duena; eta bestea xumeagoa, hitz gakoan zerrenda besterik ez da, hitz horien bidez nahi den gaiari buruzko informazioa aurkitzeko.

- Gidak jasotzen dituen gaiak honako hauek dira:
- Udal-jarduera planifikatzea, kudeatzea eta ebaluatzea.
- Arau-esparrua, udal-antolaketa eta udal-eskumenak.
- Lurraldea eta biztanleak.
- Udal kudeaketako tresnak: komunikazioa eta herritarrenganako arreta,

herritarren partaidetza, administrazio-prozedura, datu pertsonalen babesa, zerbitzu publikoen kudeaketa, administrazio-kontratazioa, euskararen normalizazioa, informazioaren eta komunikazioaren teknologiak (IKT), administrazio elektronikoa, administrazioaren modernizazioa eta sinplifikazioa.


- Giza baliabideak.
- Baliabide ekonomikoak: ondasunak, aurrekontua, finantzak, diru-laguntzak eta fiskalizazioa.
- Lurraldearen antolamendua eta hiri-gintza.
- Ingurumena.
- Ekonomia-garapena eta enplegua.
- Landa-ingurunearen garapena.
- Merkataritza eta industria.
- Udal-jarduera eta -zerbitzuak: osasuna, hezkuntza, gizarte-zerbitzuak, herritarren segurtasuna eta babes zibila, mugikortasuna, ur-hornidurako eta saneamenduko zerbitzua, argiteria, hondakinen bilketa eta tratamendua, hiltegiak, hilerriak, parke publikoak, hondartzak, kultura, artxiboak, kirolak eta aisialdia, gazteria, turismoa, jaiak, immigrazioa eta kulturartekotasuna.
- Erakundeen arteko harremanak. Senidetzeak, beste administrazio batzuei emandako zerbitzuak, partaidetza eta elkarteak.

Gai bakoitzaren fitxen egilea dagokion esparruan aditua den eta, gehienetan, esparru horretan bertan gure toki-administrazioan jarduten duen langilea dugu. Hau da, teoria, araudia eta gure lurraldean ematen den praktika –bere aukerak, mugak eta arazoak– ondo ezagutzen dituen egilea dugu gai guztietan. Azken finean, ia hirurogeita hamar adituk parte hartu dute aurtengo *Udal Gidan*.

Norentzat egiten da *Udal Gida*? Lehenik, zinegotzi guztientzako tresna izateko jaio zen, eta horretarako sortua izanik, zuzendaritza politikoak toki berezia du gidan. Bigarrenik, toki-administrazio langileek erabiltzeko tresna da, bai lan egiten duten esparruari buruzko informazio eskematikoa aurkitzeko, bai esparru horrekin lotuta agertzen zaizkien beste gai askori buruz kontsulta errazak eta azkarrak egiteko.

Gaur egun, gida bi formatutan argitaratzen da: alde batetik, paperezko liburua da, IVAPEko katalogoan dauden beste hainbat liburuen antzera; eta, bestalde, IVAPEko webgunean aurki dezakegu, formatu digitalak ematen dizkigun abantaila guztietan.

Espero dugu aurkezten dizuegun lana, *Udal Gida*, denontzat baliagarria izatea. Asmo horrekin, behintzat, ilusio, ahalegin eta lan handia jarri dute gure lurraldeko lagun askok, toki-administrazio hantetsi eta langileentzako lanabesa eskaintzeko. ■





# AMETS GAIZTO, AMETS GOXO

XABIER YURRAMENDI

HIZKUNTZA NORMALKUNTZARAKO TEKNIKARIA

–Egun on, Harritsu Madarixa naiz. Bai, egun on, etzan zaitez hor, mese-dez.

–Ez, nahiago dut eserita egon. Etsi-etsi eginda nago, jota nago, desesperaturik...

–Zer dela eta? Kontaidazu.

–Ba, loa galarazten didan amesgaizto bat dut ia gauero.

–Has gaitezen, bada, kontaidazu zure ametsa.

–Ba, Donostiako Justizia Jauregiko bulegoan ari naiz Justizia Administrazioko dokumentuak tramitatzen. Zera, batzuetan, ofizioen bidez, zordunen datu ekonomikoak eskatzen dizkiegu bankuei, eta gero epaileak agindutakoaren arabera kontu korronteen eta ondasunen kontuhartzea egiten dugu. Esan bezala, ofizioa egiten ari naiz, eta juxtu izen-abizenak jarritakoan, tramitatzeko aplikazioa gelditu egiten zait, pantaila txuri-txuri, eta bat-batean ahots ozena entzuten dut: “Ez iezakiozu nire datuak inori eman bestela... –eta ni adi-adi jartzen naiz–... bestela guk badakigu nor zaren... –eta nire izen-abizenak esaten dizkit, eta gero– ... erne ibili, ez ezazu txorakeriarik egin, guk badakigu nor zaren eta non egiten duzun lan eta non bizi zaren eta badakigu baita ere ezkondata zaudela eta bi seme-alaba dituzula...” eta orduantxe supituki ohean salto egin-da izerditan blai esnatzen naiz.

Lanean ari naizela, ametsa gogorazten dut eta dardarka hasten naiz, fikzioa eta errealitatea nahastu egiten ditut. Eta orduan, ez dut ofizio hori egiteko ahalmenik, beldur naizelako ez ote zaidan ametsetan gertatzen zaidana gertatuko. Aldamenean daukadan lankideari komentatzen diot, eta bera oso jatorra denez, lagundu egiten dit, eta hori gertatzen zaidanetan, berak tramitatzen du eta nik, berriz, berari dagozkion dokumentu batzuk tramitatzen ditut, ofizio horiekin zerikusirik ez dutenak. Gero trukatu egiten ditugu dokumentu horiek...

–Hara, nire ustez, guztiz estresatuta zaude. Konturatzen ez zaren arrazoi batengatik larri bizi zara, eta estres hori ametsaren bitartez agertzen zaizu. Nire ustez, erlaxazio-arietak egin beharko zenituzke, agian yoga egitea ere komeniko litzaizuke. Ba al daukazu urte sabatikoa eskatzerik? Agian, ez litzaizuke gaizki etorriko, edo lan-ordutegia murriztu. Gutxiago irabaziko zenuke, baina hobeto biziko zinateke. Lehenik eta behin, zeure burua hobeto ezagutu beharko zenuke. Joan zaitez, bakarrik, atsedan-leku batera, onena leku mistiko batera, isiltasun gozoa dagoen leku batera, gregorianoak entzun eta zeure buruarekin hausnarketa egin...

Kaixo, adiskide:

Harritsu Madarixa naiz.

Bizi izandako esperientzia txar bat gainditzetik dator besteei laguntzeko hartu nuen erabakia.

Izan ere, gazte-gaztetatik besteei aholkuak eta laguntza emateko premia sentitu izan dut beti. Baina, zoritxarrez, gaztetatik okertu ziren horri begira jarrita nituen itxaropenak. Zuzenbide ikasketak hasi nituen ezinbestez, lurralde honetan ez zegoen eta aukera handirik. Zuzenbidean lizentziatu eta gero, pare bat urtez behin-behinekoko lanetan aritu nintzen eta gero Justizian behin betiko lanpostua lortu nuen, oposizioak gainditu ondoren. Baina amets goxo izan zitekeena amesgaizto bilakatu zen. Egokitu zitzaidan lana zela eta, estu eta larri bizi izan nintzen, lan hori uztea erabaki nuen arte.

Une honetan *coaching* izatea dut ogibide. Lane-ko estresak, desordenek eta emozioen nahasturak, besteak beste, ekarri ninduten *coaching* mundura. Horretaz baliaturik, nire bizitza ordenatzen eta egituratzen jakin dut, erlaxazio-arietek lasaitasuna eragin didate, nire baitan alde baikorrak eta ezkorak ikusarazi dizkirate, baina, garrantzitsuena da horien aurrean hartzen dudun jarrera eta horiekiko erreakzio-moduak. Nire eginkizunetan lehenetsunak jartzen ditut, nire erantzunak arrazoitu egiten ditut, nire lankideekin elkarrizketatzea dut gogoko.

Uste dut, gainera, edozeini egiten diola on, eta behar-beharrezkoa ikusten dut lan-harreman osasuntsuak izateko, estresik gabekoak, eta lankideekiko harremanetan sakotzen laguntzeko. Besteei lagunduz neure burua ere ezagutzeko parada izan dut, eta horixe izan da besteak laguntzearekin batera lortu dudana, eta oso kontent nago.


Badakizu, laguntzeko prest nauzu, nirea bezalako kalbarioa sufri ez dezazun, amets gaizto amets goxo bilakatzeko.

Eskerrik asko entzuteagatik.


Besarkada handi bat.

Harritsu Madarixa

# Hitz gezidunak

	* IZENA		Harri txintxarra	Leku hartan	Txorizoa	Nitrogenoa
	Bustitasun		Zauria egin	Tu eginez	Infin., sartu	
	Adiskide minak					Ez on
	Azalera neurria					
Bizkaiko herria	Aldrebesak				Norat atzikia	
Edaleak	* DEITURA				Gesal	
					9	
					Oxigenoa	
Sobera			Iridioa	Alkohol edaria		
Askatasun			Base amerikar	Jatorri atzikia		
					Kriptona	
					Hizki baten izena	
Baldintzetan		4. eta 5. bokalak		Betea		Musika nota
Hark balu, eta niri ...		999		Kasik		
			Asiako estatua			50
			Kontsonantea			1000
Palestinako hiria				Ontzia gidatzeko tresna		

# Goitik behera



Aurkitu beharreko hitz bakoitza letra bat gehiago edo gutxiago duen aurreko edo ondoko hitzaren anagrama da.

1. Belazeak, belardiak.
2. Jarraitzaileak.
3. Karrika.
4. Barazki lekaduna.
5. Suari dariona.
6. Moduak.
7. Kisua, igeltsua.
8. Lur kolore ilunekoak.
9. Hitzez adieraziak, esanak.

## SOLUZIOAK

		N		T	X	A	R		L	A
L	U	K		A	I	N	K		A	M
	S	A	R		O		E	N	E	
H	A	N		K	R	E	S	A	L	
	T	U	K		A	T	A	R		
L	E	G	A	R	A			I	R	A
	Z	A	U	R	I	R	O	U	L	A
P	E	L	A	L	O	R	R	O	T	A
	H		A	K	R	E		I	M	A
			Z	A	R	E		B	A	R
			B		L	I	B	A	L	R
			M		L		B			

1. Zelaiak.
2. Zaleak.
3. Kalca.
4. Leka.
5. Kea.
6. Erak.
7. Kareak.
8. Arreak.
9. Erranak.

# Goitik behera

## Hitz gezidunak

# Ariketak75

ADMINISTRAZIOA  
EUSKARAZ

## I. Euskaltzaindiaren *Hiztegi Batua* kontuan hartuz, aukeratu zuzena.

1. a) Medikuak **aho-gingila** handituta dudala esan eta antibiotikoak agindu dizkit.  
b) Medikuak **aho-gangaila** handituta dudala esan eta antibiotikoak agindu dizkit.
2. a) Patxik betidanik izan du **gangailu** fama; ohean, lanean baino ordu gehiago eman izan ditu gaztetatik.  
b) Patxik betidanik izan du **kankailu** fama; ohean, lanean baino ordu gehiago eman izan ditu gaztetatik.
3. a) Haitzaren iparraldean kareharrizko **gandor** zorrotz bi daude, mendebal-detik iparraldera, zutik jarritako harrizko bi orri balira bezala.  
b) Haitzaren iparraldean kareharrizko **gangor** zorrotz bi daude, mendebal-detik iparraldera, zutik jarritako harrizko bi orri balira bezala.
4. a) Emakumeak zapi zuri bat zeraman buruan, gizonak lastozko **kapelu** hegadun bat.  
b) Emakumeak zapi zuri bat zeraman buruan, gizonak lastozko **gapelu** hegadun bat.
5. a) Gasteizko autobus **gara** berria eraikitzeke proiektua gaur aurkeztuko dute.  
b) Gasteizko autobus **geltoki** berria eraikitzeke proiektua gaur aurkeztuko dute.
6. a) **Garabi autoen** gidariek greba iragarri dute hurrengo asterako.  
b) **Garabiautoen** gidariek greba iragarri dute hurrengo asterako.
7. a) Donostiako denda horretan zapata **garastiak** baino ez dituzu aurkituko.  
b) Donostiako denda horretan zapata **garestiak** baino ez dituzu aurkituko.
8. a) Kaliforniako Unibertsitateko ikerlari talde baten arabera meditazioak **garauna** indartzen laguntzen du.  
b) Kaliforniako Unibertsitateko ikerlari talde baten arabera meditazioak **garuna** indartzen laguntzen du.
9. a) Aitonak arrantzarako erabili ohi duen **karnata** Andaluziatik bidaltzen diote.  
b) Aitonak arrantzarako erabili ohi duen **garnata** Andaluziatik bidaltzen diote.
10. a) Filmean akats bat antzeman dut: sorginak sudurrean zuen **garatxoa** azken irudietan desagertu egin da.  
b) Filmean akats bat antzeman dut: sorginak sudurrean zuen **garatxa** azken irudietan desagertu egin da.

IVAP

HERRI ARDURALARITZAREN  
EUSKAL ERAKUNDEA



2. Saia zaituz mapan kokatzen honako hiri hauek, idatz itzazu euskarazko forma zuzenean.

- |                   |         |           |
|-------------------|---------|-----------|
| Brussel/Bruxelles | London  | Roma      |
| București         | Madrid  | Sarajevo  |
| Den Haag          | München | Stockholm |
| København         | Porto   | Venezia   |



Iturria: aularagon.org

3. Aukera itzazu multzo honetako euskarazko izen zuzenak.

Korzega	Varsovia	Bizkaiko Golkoa	Grozny
Komo aintzira	Txernobil	Eivissa	Txipre uhartea
Zerdeña	Kaspiar Itsasoa	Florenzia	Itsaso jonikoa
Magdeburg	Itsaso Beltza	Dordoina	Frisiako uharteak
Eskagerrak itsasartea	Itsaso zuria	Palma Uhartea	Guadalquivir

- |          |          |
|----------|----------|
| 1. _____ | 6. _____ |
| 2. _____ | 7. _____ |
| 3. _____ | 8. _____ |
| 4. _____ | 9. _____ |
| 5. _____ |          |

#### 4. Lotu hitz bakoitza bere sinonimo eta antonimoekin.

1. aise
2. murgildu
3. idor
4. mikatz
5. oldarkor

Sinonimoak	Antonimoak
odolbero, suhar	busti, heze
agor, ihar	baketsu, mantso
mingots, samin	gozo, ezti
dzanga egin, txonbo egin	nekez, zail
aisit, erraz	azaleratu, urgaineratu

#### 5. Eman letra lodiz dauden hitzen sinonimoak.

1. Euskal Herrian erromatar garaiko **aztarna** handienak Iruña Oka (Araba), Andionen eta Iruñean bertan daude.
2. Aurrerapenak **sumatu** badituzte ere berriro ekingo diote grebari EAEko funtzionarioek.
3. Hitzartutako **eskumenek** hiru milioi euro balio dute, eta horiek eskualdatzearen ondorioz, beste hogeita bost funtzionarioek lan egingo dute Jaurlaritzarentzat.
4. Askok esaten du hiltzeko modurik hobereena **supituki** hiltzea dela, ezer sentitu gabe.
5. Hura ikustean, kazetaria bere **koaderno** urdina poltsatik atera eta oharrak hartzen hasi zen.
6. Berandu nenbilen, eta etxeokak ohartu ez zitezen **ebaska** sartu nintzen otsoen moduan.
7. Piraten esku ia-ia hilabete bahituta eman ondoren, nekatuta baina **bipil** agertu dira arrantzale euskaldunak.
8. Gobernuak euskal hedabideei agindutako diru laguntzak ez dira heldu, eta horrek **kinka larrian** jarri ditu hainbat hedabide.
9. Mundakako inauterietan atorrak zuriz jantzita ateratzen dira, **burur-di** azala buruan, gona, alkandora eta galtzak soinean.
10. **Ezarian-ezarian** argaltzen hasi zen gaixoa, eta sendagileek oraindik ez dute asmatu zein den gaitza.
11. Etxetik entzun genituen athleticzaleen **aldarriak** Real Madrili lau eta batekoa sartu zionean.

# Soluzioak75

- I. 1. a  
2. b  
3. a  
4. a  
5. b  
6. a  
7. b  
8. b  
9. a  
10. a

2.



3. Forma zuzenak.

- |             |                  |                      |
|-------------|------------------|----------------------|
| 1. Varsovia | 4. Mallorca      | 7. Dordoina          |
| 2. Grozny   | 5. Magdeburg     | 8. Frisiako uharteak |
| 3. Eivissa  | 6. Itsaso Beltza | 9. Guadalquivir      |

Forma okerrak.

- |  |   |
|--|---|
| Korzega* e. <b>Korsika</b>                 | Florenzia* e. <b>Florentzia</b>                         |
| Bizkaiko Golkoa* e. <b>Bizkaiko golkoa</b> | Itsaso jonikoa* e. <b>Itsaso Jonikoa</b>                |
| Komo aintzira* e. <b>Comoko aintzira</b>   | Dresde* e. <b>Dresden</b>                               |
| Txernobil* e. <b>Txernobyl</b>             | Eskagerrak itsasartea* e. <b>Skagerrak (itsasartea)</b> |
| Txipre uhartea* e. <b>Zipre (uhartea)</b>  | Itsaso zuria* e. <b>Itsaso Zuria</b>                    |
| Zerdeña* e. <b>Sardinia</b>                | Palma Uhartea* e. <b>La Palma (uhartea)</b>             |
| Kaspiar Itsasoa* e. <b>Kaspiar itsasoa</b> |   |

4.

1. aise
2. murgildu
3. idor
4. mikatz
5. oldarkor

sinonimoak	antonimoak
aisit, erraz	nekez, zail
dzanga egin, txonbo egin	azaleratu, urgaineratu
agor, ihar	busti, heze
mingots, samin	gozo, ezti
odolbero, suhar	baketsu, mantso

5.

1. aztarna: aztarren, lorratz, arrasto
2. sumatu: antzeman, igarri, hauteman
3. eskumenek: aginpideek, manuek, kompetentziek
4. supituki: deblauki, bat-batean, ustekabeen, zapla, tupustean
5. koaderno: kaier
6. ebaska: isilean, gordeka, isil-ostuka, ostu-ostuka
7. bipil: adoretzu, ausart
8. kinka larrian: atakan, estuasunean
9. bururdi: burukita, burko
10. ezarian-ezarian: geldiro-geldiro, emeki-emeki
11. aldarriak: oihuak, zaratak

IVAP

HERRI ARDURALARITZAREN  
EUSKAL ERAKUNDEA





ERAKUNDEEN ARTEKO LANKIDETZAREKIN  
HERRITARRARI ZERBITZURIK ONENA EMATEKO

# EUSKARA

## ENTITATE PUBLIKOETAN

### JARDUNALDIAK

2012ko OTSAILAREN 2an  
ARABAKO TEKNOLOGI PARKEAN (MIÑAO)

JARDUNALDIEI  
BURUZKO INFORMAZIOA:

[http://www.euskara.euskadi.net/r59-entepubl/eu/contenidos/informacion/ente\\_publicoak/eu\\_entepubl/sarrera.html](http://www.euskara.euskadi.net/r59-entepubl/eu/contenidos/informacion/ente_publicoak/eu_entepubl/sarrera.html)

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

KULTURA SAHIA

Hakuntza Politikarako Saiburuondatza  
Euskara Sustatzeko Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE CULTURA

Viceconsejería de Política Lingüística  
Dirección de Promoción del Euskara



Liburu hauek  
hemen  
dituzu salgai:

**IVAP**

HERRI ARDURALARITZAREN  
EUSKAL ERAKUNDEA

Unibertsitateko etorbidea z/g  
20600 Oñati  
Tel.: 943 782 000  
Faxa: 943 783 177  
[argitalpenak-ivap@ivap.es](mailto:argitalpenak-ivap@ivap.es)

ADMINISTRAZIOA  
EUSKARAZ

zure etxean doan jaso nahi baduzu,  
idatzi helbide honetara:

**IVAP**

Donostia-San Sebastián 1  
01010 Vitoria-Gasteiz  
[administrazioaeuskaraz@ivap.es](mailto:administrazioaeuskaraz@ivap.es)

Abizenak

Izena

NAN/IFZ

ENA

Helbidea

Posta-kodea

Herria

Probintzia

Mugikorra

e-posta